



Koldo Eleizalde Iehiaketak

XXXVIII. edizioa
2023

Ipuin idatzia / Poesia

Bertso edo koplak

Komikia



Bergarako Udala
EUSKARA ZERBITZUA

Patxi Zazpi 22

SARRERA.....	5
--------------	---

Ipuina / Poesia

1. taldea:

Saria: Maddi eta moxala. Malen Azkarate-Askasua.....	7
Saria: Suzko etxea. Alazne Elorza.....	11
Saria: Kobazulo misterioa. Hodei Goenaga.....	15

2. taldea:

Saria: Urpiren abentura. Naia Badiola.....	19
Saria: Zergatik egiten didate ihes nire lagunak? Garazi Eizmendi.....	23
Saria: Simon hankaluze eta denboraren makina. Jon Larrañaga eta Martxel Silvar.....	29

3. taldea:

Saria: Aingeru beltza. Alain Abajo.....	35
Saria: Udalekuak Bermeon. Maialen Garcia.....	39
Saria: Bizitza ez da berdina denontzat. Ariane Gomez.....	47

4. taldea, ipuina:

1. saria: Zoriontasunaren eskuetan. Julen Badiola.....	53
2. saria: Galdutako denbora. Elene Diaz.....	61
3. saria: Ardien munstroa. Ane Ibarra.....	73

5. taldea, ipuina:

1. saria: Esan izan banio. Maddi Martin.....	83
2. saria: Nork entzungo zaituen. Miriam Moñux.....	91
3. saria: Ispiluaren isla. Ainhoa Pardina.....	99

5. taldea, poesia:

1. saria: Denboraren hausnarketak: Pertsobarak. Ainhoa Pardina.....	107
---	-----

Argitaratzailea: Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzua

Azaleko irudia: Jon Balentziaga

Diseinua eta maketazioa: Gertu Inprimategia. Oñati.

Inprimategia: Gertu Inprimategia. Oñati.

Lege-gordailua: SS 42-2015

Bertsoa

1. taldea:

Saria: Saltxitxalandia, saltxitxa txakurren planeta.	
Aranzadi ikastolako 5. mailako ikasleak.....	115
Saria: Txakurra nahi dut. Aranzadi ikastolako 5. mailako ikasleak	119
Saria: Agur Putin. San Martin Agirre herri eskolako 6 mailako ikasleak.....	123

3. taldea:

1. saria: Bertso berriak Marokori jarriak.	
Unai Garmendia eta Xabier Eguren.....	127

Komikia

1. taldea:

Saria: Emma eta abenturaren deia. Paule Arrizabalaga.....	131
Saria: Jesus eta bere prezioak.	
Saioa Gallastegi, Irati Garmendia eta Nahia San Vicente.....	135
Saria: Errege bilakatu zen xagua. Ainhoa Herran.....	137

2. taldea:

1. saria: Inor ez da inor baino hobea. Jare Alberdi.....	145
2. saria: Koloreen berreskurapena. June Tabares.....	147

3. taldea:

1. saria: Tragedia eta komedia. Maite Errasti.....	151
2. saria: Ezeztabaibaida ezbaia. Jon Altuna.....	153

Hona hemen Koldo Eleizalde lehiaketako XXXVIII. edizioko liburuxka. Gure zorionik beroenak azaldu nahi dizkiegu ipuin, komiki, bertso, antzerki eta bideo laburretako parte hartzaile guztiei eta, nola ez, irabazle atera direnei.

Hitzaurre hau idatzi aurretik, ideiak jasotze aldera, hainbat ediziotako liburuxkak izan ditut esku artean. Horietan, hainbat lagun lanak aurkitu ditut, eta beraiei bidali dizkiet. Horietako batek, bere haurrari irakurri dio aspaldi idatzi zuen ipuina, beste batzuk lagun artean partekatu dituztela adierazi didate, guztiek berreskuratu dute garai hartako ilusio hori.

Euskararen bizi iraupenari laguntzeko ezinbestekotzat dugu, besteak beste, sortzaileon lana eta, ondoren, nola ez, lan horiek partekatzeak dakarren gozamina; beraz, idatzi, kontatu, kantatu eta irakurri zuon ingurukoei liburuxka honetako pasarteak, hala jarraituko baitu euskarazko sorkuntzak bizirik eta indartsu.

Azkenik, keinu txiki bat egin nahi nieke lehiaketa honetan bidelagun izan diren guztiei. Horien artean esker bereziak eman nahi nizkieke irakasleei, elikatze eta sustapen lanetan egundoko ahalegina egiten dutelako.

Bejondeizuela ba guztioi!

Eider Usobiaga Isazelaia
Euskara batzordeburua



Malen Azkarate-Askasua

Lehenengo taldea

Saria

IPUINA

Maddi eta moxala

MADDI ETA MOXALA

Behin batean, Bergarako baserri batean sute bat egon zen.

Ondoko baserrikoak laguntzera etorri ziren. Suhiltzaileei deitu zieten eta, etorri bitartean, baserrian zeuden animaliak beste baserrira eraman zituzten.

Animalien artean moxal bat zegoen, ama galdu zuena. Beldurtuta zegoen eta ez zuen inor hurbiltzen lagatzen.

Maddi izeneko neska batek moxala ikusi zuen eta lagundu nahi izan zion.

Maddi egunero joaten zen zaldikumea ikustera, baina honek ez zion gerturatzen uzten.

Egunero, sagar bat eramaten zion zaldi txikiari. Poliki-poliki gerturatzen hasi zen eta moxala lasaitzen hasi zen. Maddik oso ondo zaintzen zuenez lagun handiak egin ziren.

Moxala handitzen joan zen eta Maddi ikusteko irrikan egoten zen. Handitu zenean, Maddi zaldi gainean jarri eta mendira joaten hasi ziren.

Biak oso lagunak egin ziren eta elkarrekin pozik zeuden. Maddik oso ondo ikasi zuen zaldi gainean ibiltzen eta lehiaketa batzuetara ere joan ziren. Handik aurrera, Maddi eta zaldia elkarrekin zoriontsu bizi izan ziren.





Alazne Elorza

Lehenengo taldea

Saria

IPUINA

Suzko etxea

SUZKO ETXEA

Bazen behin etxe zahar-zahar bat. Eta han botereak zituen neska bat bizi zen. Egun batean, mutil bat etorri zen eta bat-batean etxeari begiak atera zitzaizkion eta mutila beldurtuta gelditu zen.

Neskatoa etxetik atera zen eta mutilak esan zion:

—Nola zabaldu ditzake begiak etxeak?

—Kontatu ahal dizut sekretu bat?

—Bai!

—Nik super botereak ditut. Eta etxea magikoa da. Sartu nahi duzu?

—Bai, mesedez.

—Kafea nahi duzu?

—Bai!

—Beno, oso goxoa zegoen. Agur!

—Bai, agur. Bihar arte!

—Aizu, neska! Nola deitzen zara?

—Ni Maddi deitzen naiz.

—Ni, Iñaki.

Eta, bat-batean, etxea hasi zen suzko bolak botatzen.

Iñakik galdetu zion Maddiri zer gertatzen ari zen.

—Ez dakit, Iñaki —esan zion.

—Ni etxera joango naiz. Eta ea bihar nola dagoen etxea. Bihar arte!

—Bai, agur!

Iñaki joan zen eta etxea lasaitu egin zen. Eta etxeak kontatu zion Maddiri ez zuela nahi Iñaki Maddirekin egotea. Eta horregatik hasi zela suzko bolak botatzen eta jaikitzen atera zitzaizkion bi esku eta bi hankekin.

Eta, orduan, Maddik etxeari botereak kendu zizkion.

Eta orduan, egunero, lasai-lasai, joaten zen Iñaki Maddiren etxera. Eta etxea eta Iñaki lagunak bihurtu ziren.





Hodei Goenaga

Lehenengo taldea

Saria

IPUINA

Kobazulo misterietsua

KOBAZULO MISTERIOTSUA

Bazen behin Erratzu izeneko herri txiki bat. Herria mendiz inguratuta zegoen eta, bertan, kobazulo misteriotso bat zegoen.

Elezahar ugari zeuden kobazuloaren inguruan. Inor ez zen bertara gerturatzen, herritar guztiek beldurra zuten.

Arratsaldero, herriko umeak plaza inguruan jolasten ziren.

Egun batean, Xabi izeneko mutil batek, lagunei ezer esan barik, kobazulo misteriotsoa gerturatzea erabaki zuen.

Bertara heldu zenean dardarka zegoen, beldurra zuen. Baina, azkenean, arnasa hartu eta barrura sartu zen.

Kobazuloa ilun-ilun zegoen, ez zen ezer ikusten. Linterna piztu eta hura kobazulo handia!

Aurrera jarraitu zuen. Bidea estutzen hasi zenez makurtuta pasa behar izan zuen. Tunelaren amaieran laku eder bat zegoen. Xabi txundituta gelditu zen lekuarekin eta inori ez esatea erabaki zuen. Natura zaindu behar dugu eta, hortaz, kobazuloaren sekretua gorde zuen.



Naia Badiola

Bigarren taldea

Saria

IPUINA

Urpiren abentura

URPIREN ABENTURA

Urpi ur-tanta gazte bat zen. Udaberriko arratsalde batean bota zuen zaparrada batean sortu zen, Gatzaga herrian. Deba ibaian zehar joan zen bere familiako beste ur-tanta batzuekin batera, eta Deba herrian itsasoratu zen. Udako beroekin lurrundu eta hodei baten zati bihurtu zen, eta haizearekin, berriro, Arrasate ingurura mugitu zen; berriz euria egin eta Deba ibaira joan zen. Horrela hainbat aldiz. Urpi oso aspertuta zegoen beti gauza bera egiten ari zelako.

Urpri asko gustatzen zitzaion Saturno planeta; hodei bihurtuta zegoenean zerutik ikusten zuen. Urpiri Saturnora joatea gustatuko litzaioke eta bere amari beti galdetzen zion ea joan zitekeen, eta bere amak ezetz erantzuten zion. Urpi oso triste zegoen amak ez ziolako Saturnora joaten uzten.

—Baina... zergatik ezin naiz Saturnora joan? —esaten zion Urpik amari.

—Oso arriskutsua delako eta inoiz ez delako lurreko ur-tanta bat hain urruti joan. Gainera han ez dago ezer eta aspertu egingo zara —erantzuten zion amak.

Baina, egun batean, Urpi lurrundu eta bere lagun gazte batzuekin hodei bihurtu zen. Haize gogor bati esker Lur planetatik urrundu eta Saturnoraino heldu ziren. Heldu eta gutxira zaparrada bat bota zuen eta Saturnoko putzu txiki baten zati bihurtu ziren; baina Saturnon hotz egiten zuenez ezin ziren lurrundu eta harrapatuta gelditu ziren putzu txiki hartan. Gurasoengandik oso urrun zeuden eta orain bai zeudela

oso aspertuta. Zenbat aldiz gogoratzen zen amak esandakoaz.

—Amari kasu egin banio... Ze negargura!

Halako batean, espazio-ontzi bat agertu zen eta Saturnon lurreratu zen. Bertatik astronauta bat jaitsi zen eta nahigabe putzuan sartu zuen hanka. Ur-tanta guztiak astronautaren oinetakoan itsatsita gelditu ziren. Astronauta estatubatuarra zen eta bertara bueltatu zen espazio-ontzia. Lurreratu ondoren, astronautak oinetakoak garbitu zituen, eta ur-tanta guztiak New Yorkeko Hudson ibaira joan ziren. Handik ozeano Atlantikora joan ziren eta berriro bidaia berdina egin zuten, behin eta berriz. Harrapatuta zeuden Ameriketako Estatu Batuetan.

—Nik etxera bueltatu nahi dut —esan zuen Urpik.

—Nik ere bai —esan zuten beste guztiek.

—Ideia bat daukat! Itsasoratzen garenean ur-azpira joango gara, eta horrela ez gara lurrunduko, eta itsaso-azpitik igerian bueltatuko gara etxera —esan zuen Urpik.

Guztiek nahi zuten gurasoengana bueltatu eta itsasora heldu ziren batean, Urpik esan zuen moduan, urpera joan ziren eta, igerian, ozeano Atlantiko guztia zeharkatu zuten. Handik, Kantauri itsasora heldu ziren eta euren gurasoekin bat egin zuten. Denak asko poztu ziren eta amarekin batu zenean, amak esan zion Urpiri:

—Uрпи, ikusten duzu zer gertatzen den gurasoei kasu ez egiteagatik?

—Bai, ama! Arrazoi duzu, ez dut berriro ihes egingo.

Eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila Saturnoko eraztunean eta atera dadila New York-eko plazan.



Garazi Eizmendi

Bigarren taldea
Saria

IPUINA
Zergatik egiten didate ihes
nire lagunek?

ZERGATIK EGITEN DIDATE IHES NIRE LAGUNEK?

Bazen behin sagutxo bat, dutxatzen eta bainatzen ez zena.

Horregatik, bere lagunek ihes egiten zioten gaizki usaintzen zuelako.



Baina, saguak ez zekienez gaizki usaintzen zuenik, pentsatzen zuen haserre zeudela berarekin.

Hurrengo egunean, berriro bere lagunengana joan zen eta ihes egin zioten.

Saguak galdetu zion oilarrari ea lagundu ahal zion:

—Oilarra, zuk badakizu zergatik egiten duten ihes nire lagunek?
—esan zuen saguak.

—Ba..., igual, lumarik ez duzulako —erantzun zion oilarrak.

Hurrengo egunean, sagua, lumak jarrita bere lagunengana joan zen, baina... alferrik izan zen! Berriro ihes egin zuten.



Gero, igelarekin topo egin zuen eta galdetu zion:

—Igela, badakizu zergatik ihes egiten duten nire lagunek?

—Ba, saltoka ibiltzen ez zarelako —esan zion igelak.



Sagua bere lagunengana joan zen saltoka, baina alferrik izan zen. Bere lagunek oraingoan ere ihes egin zuten.

Gero untxiarengana joan zen eta galdetu zion:

—Untxia, badakizu zergatik egiten duten ihes nire lagunek?

—Ez duzulako azenariorik jaten —erantzun zion untxiak.



Sagua bere lagunengana azenarioak jaten joan zen, baina bere lagunek ihes egin zioten.

Bat-batean txakurrarekin topo egin zuen.

—Txakurra, badakizu zergatik egiten duten ihes nire lagunek?
—galdetu zion saguak.

—Puff!! Ze gaizki usaintzen duen hemen. Utzidazu usaintzen
—esan zion txakurra—. Badakit zergatik ihes egiten duten zure lagunek, kristoren kiratsa duzulako!

Sagua korrika joan zen, eta korrika zihoanean, platano azalarekin labaindu eta zakarrontzira jausi zen. Orduan bai zuela kiratsa!!



Beldurrez bere amarengana joan zen eta bainatzeko eskatu zion, sekula ez baitzen bainatu.

Bainuontzian jolasten aritu zen, burua uretara sartu eta atera.



Saguari asko gustatu zitzaion esperientzia berria. Bainatu ondoren, parke batean irakurtzen hasi zen eta bere lagunak han zeudenez saguarengana hurbildu ziren.

Saguak ezin zuen sinistu bere lagunek berarekin egon nahi zutela!



Handik aurrera sagua sarritan duxatzen da eta bere lagunekin primeran pasatzen du. A! Baina beti ere uraren erabilera egokia eginez.



**Jon Larrañaga
eta Martxel Silvar**

**Bigarren taldea
Saria**

IPUINA
**Simon hankaluze
eta denboraren makina**



SIMON HANKALUZE ETA DENBORAREN MAKINA

Bazen behin mutiko bat Simon izena zuena. Bere aita eta ama asmatzaileak ziren eta urtebetetzean denboraren makina bat oparitu zioten.

Bere amak edari bat asmatu zuen handitzeko. Egun batean laborategira joan zen Simon, doministiku egin, eta edari handitzailea hanketara erori zitzaion. Ondorioz, hankak luzatu zitzaizkion.



Orduan, bere lagun Xilini deitu zion, berak jakingo baitzuen Simon nola sendatu.

Xilinek, heldu zenean, denboraren makina erabiltzeko esan zion Simoni.

—Zer ideia ona! —esan zion Simonek.

Orduan, botoi gorria zapaldu zuen Simonek eta espazio-denboran sartu ziren.



Simonek atea zabaldu eta Tiranosaurus rex bat topatu zuten.

Tiranosaurusak buztanarekin jo eta airean bota zuen. Mendiko arroketara heltzeaz zegoela pterodaktilo baten habiara erori zen. Pterodaktilo ama agertu eta zizareak eman zizkion Simoni.



Bi minutu beranduago, tripako minekin hasi, eta botaka egin zuen. Simon garrasika hasi zen, Xilini deika.

Xilinek entzun eta Simonen bila abiatu zen. Eta han zegoen Simon garrasi batean.

—Lagundu Xilin! Etorri! —esan zuen Simonek.

—Oraintxe noa! —erantzun zion Xilinek.

Hantxe ikusi zuen Simon, negar batean, garrasika, pterodaktilo baten habian.



Xilinek aprobetxatu zuen pterodaktilo ama lo zegoela Simonekin denboraren makinara bueltatzeko.

Denboraren makina barruan zeudela botoi urdina zapaldu zuen Simonek eta berriro espazio-denboran sartu ziren.

Motorra zaratatxoak ateratzen hasi zen eta ziplo erori ziren biak.

Bat-batean, esfingearen sudurrean agertu ziren. Poliki-poliki eskalatzen jaitsi eta taberna batera joan ziren. Tabernan egunkaria hartu zuten eta hantxe zegoen Xerdel magoa, Menphisetik gertu.



Simonek eta Xilinek dromedarioak hartu zituzten eta Menphiseran abiatu ziren.

Desertuan zeudela etxe zoragarri bat topatu zuten. Etxean sartu zirenean ahots bat entzun zuten. Orduan, norbaitek argia piztu zuen eta hortxe agertu zen Xerdel magoa eta bera animalia, sugea.



Simonek eta Xilinek esan zioten denboraren makina apurtu zitzaizela eta Xerdel magoak lagundu egin zien.

Simonek eta Xilinek esan zioten esfingean zegoela denboraren makina eta hara joan ziren. Hantxe zegoen denboraren makina, esfingearen sudurrean.

Xerdel magoak makila magikoa hartu zuen eta hitz magikoak esan zituen:

—Alabin, alaban —eta denboraren makina konpondu egin zen.



Xerdel magoari beste mesede bat eskatu zioten, Simoni hankak txikitzea.


—Hankak txikitu —esan zuen Xerdel magoak, eta Simonen hankak txikitu egin ziren.

Xerdeli agur esan eta denboraren makinan sartu ziren.

Denboraren makinan zeudela botoi berdea zapaldu eta laborategian agertu ziren.

Simon bera aitarengana eta amarengana joan zen korrika.

Hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Bergarako plazan.



1.- Ez egin barre zerbait desberdina duenari.

2.- Zerbait desberdina duten pertsonei, bullyinga jasaten ari direnei, lagundu.

3.- Zerbait desberdina dutenak berdin tratatu.





Alain Abajo

Hirugarren taldea

Saria

IPUINA

Aingeru beltza

AINGERU BELTZA

Lainoen artean zegoen herri txiki batean aingeru bat bizi zen, Inge izenekoa. Ez zen beste aingeruak bezalakoa; bere hegoak beltzak ziren, ikatzaren modukoak, luma pila bat zuten eta oso luzeak ziren.

Inge bere herriko kaleetatik pasatzen zenean, aingeru guztiak bere hegoei begira gelditzen ziren. Egun batean, aingeru gazteak Ingerengana hurbildu ziren eta...

—Aizu! Herri honetan hego zuriak dituzten aingeruak soilik dira ongi etorriak, baina zu bezalako hegoak dituztenak aldiz, ez. Beraz, alde hemendik! —esan zion aingeru gazteenak.

Ingek aurrera jarraitu zuen, etxera bidean. Etxera heltzean, hego zuriak behar zituela ohartu zen. Orduan, bere etxe kanpoan aingeru batzuk hitz egiten entzun zituen:

—Badakizu esaten dutela lainoaren puntan aingeru magiko bat dagoela? Eta hegoak nahi dituzun koloretakoak bihurtzeko boterea duela?

Ingek jakin zuenean aingeru magiko bat zegoela lainoaren puntan, hurrengo egunerako motxila prestatzen hasi zen. Goizean goiz, Inge etxetik irten eta lainoaren puntara abiatu zen hegan. Geroz eta gorago zihoan bitartean, txori bat ikusi zuen eta berarengana hurbildu zen. Txoria bakarrik zegoen, eta Ingek erabaki zuen txoria berarekin joango zela lainoaren puntaraino, Ingek ezin baitzuen bakarrik utzi. Izar izena jarri zion.

Pixka bat geroago, Ingek eta txoriak euria zetorrela ikusi zuten eta konturatu ziren nonbaiten sartu behar zirela euritik babesteko. Orduan, Ingek aingeru bat ikusi zuen:

—Barkatu, ezagutzen duzu tokiren bat euritik babesteko?

—Egia esanda ez, baina bizkor-bizkor gorantz hegan egiten baduzue, ez duzue euritik babestu beharrik izango.

—Ados —erantzun zion Ingek—. Eskerrik asko.

Zitzu bizian hegan joan ziren Inge eta txoria. Lainoaren puntara heltzean, aingeru magikoa bilatzen hasi ziren. Ordu pila bat ibili ziren aingeru magikoaren bila, baina ezer ez. Esperantzarik gabe zeudenean, zarata batzuk entzun zituzten eta hots horiek nondik zetozen begiratzera joan ziren.

Bat-batean, herritxo bat ikusi zuten eta hurbildu egin ziren. Hango aingeruek ez zituzten bakarrik hego zuriak, denetatik zegoen: aingeru urdinak, moreak, gorriak, horiak, berdeak, ostadar-kolorekoak eta kolore pila bat gehiagoko aingeruak. Orduan, gerturatu egin ziren eta aingeru bati galdetu zioten:

—Barkatu! Zein herritan gaude?

—Ostadarraren herria da hau.

Eta berehala jakin zuen zergatik zeuden hainbeste koloretako hego ezberdinak zituzten aingeruak. Inge orduantxe konturatu zen bera ez zela arraroa eta ez zuela ezer aldatu beharrik.



Maialen Garcia

Hirugarren taldea

Saria

IPUINA

Udalekuak Bermeon

UDALEKUAK BERMEON

Ni Lur naiz, 12 urte ditut eta Euskal Herriko herri batean bizi naiz, Tolosan.

Iaz, sekulako udaleku batera joan ginen, ni eta nire hiru lagunik onenak: Mikel, Ainhoa eta Izadi. Bermeoko udalekuetara, hain zuzen ere, eta bertan izandako abentura kontatuko dizuet.

Mikel nire lagunik onena da, beti dago nire ondoan. Ainhoari animaliak izugarri gustatzen zaizkio eta Izadi oso alaia da. Lau lagunok asko errespetatzen dugu natura, ikastolako irakasleak asko erakutsi baitigu gai horren inguruan.

Bermeora joan behar ginen egunean, esnatu eta 150 WhatsApp nituen mugikorrean.

—Lur, zenbat bisera eraman behar dituzu? 1 edo 2?

—Eta zenbat galtza pare?

—Eraman behar duzue bainujantzia? Zenbat...?

—...

Azkenean maletak prest genituen eta Bermeora joateko ordua iritsi zen. Oso pozik nengoan. Ainhoa, aldiz, triste zegoen, bere 2 katu, 8 dortoka, 3 arrain eta Txuri txakurra 10 egunetan ez zituelako ikusiko.

Udalekuetako lehenengo egunean, Maren begiraleak hondartzara joateko esan zigun. Hondartzara heldu eta bi mutilek, Jokinek eta Peruk, janari-hondarrak uretara bota zituzten.

Bero haundia egiten zuen. Jokinek uretara salto egin zuen, eta atzetik Peruk. Minutu gutxira desagertu egin ziren biak. Non egongo ziren?

Nire lagunak eta ni oso abenturazaleak gara, horregatik esploratzera joan ginen itsasora. Itsasora sartu bezain laster konturatu ginen itsasoak bizia zuela. Ur-azpia ondo ikertu ondoren, Ainhoa arrain batekin hizketan ikusi genuen:

—Kaixo, badakizue nondik joan diren bi mutilak?

—Bai, Amalurrak eraman ditu.

—Nora? Hitz egin dezakegu berarekin?

—Bai, 400 metro aurrera jarraitzen baduzue, berarengana helduko zarete.

—Ados, eskerrik asko.

Denok harrituta gelditu ginen Ainhoa animaliekin hitz egiteko ahalmena zuelako.

Amalurraren bila abiatu ginen, baina ez genuen Amalurra itsasoan topatzen... Bat-batean... Jokin eta Peruren oihuak entzun genituen. Oihuei jarraitu eta Amalurrarengana heldu ginen.

—Amalurra, zergatik harrapatu dituzu gure lagunak?

—Oso haserre nagoelako! Itsasoa zikindu dute! Ni zikindu naute!

—Eta ezin dugu ezer egin?

—Ez! Zigortuta geldituko dira, itsaso osoa garbitzen.

—Baina, guk ezin dugu ezer egin?

—Ondo da... Joan zaitezte portura eta hartu arrantzale baten ile bat, eta sartu pote batean. Ondoren, joan Urdaibaiko trainerura eta hartu traineruko egur zati bat eta sartu pote berean. Ondoren, nahastu guztia itsasoko urarekin eta bota portuan dagoen Xixili estatuaren gainera. Baina, kontuz ibili arrantzaleekin, oso umore txarra baitute! Xixiliren gainera botatzen duzuenean edabea, mundu guztiak lo hartuko du, eta gizaki bakoitzak botatako janari-hondarrak eta zabor guztia jasoko dituzue. Lortzen baduzue, aske utziko ditut Jokin eta Peru.

—Ados! —esan genuen, beldur pixka batekin.

Hurrengo egunean, arrantzaleen bila joan ginen portura. Hara heldu ginenean, nik, poliki-poliki, Tomas izeneko arrantzaleari iletxo bat kentzea lortu nuen. Baina, segundo gutxira, arrantzale guztiak guregana gerturatzen hasi ziren, gu harrapatu nahian. Eskerrak uretara salto egin genuela, baina ez ginen uretara jausi, Urdaibaiko traineru barrura baizik.

Traineruak Xixiliren ondora eraman gintuen eta Izadik, azkar-azkar, pentsatu gabe, egur zati bat hartu zuen gure potean sartzeko.

Lehenengo, uretan bainu bat hartu genuen Xixiliren ondoan, eta Mikelek uretara salto egin zuen, pote barruan zegoen guztia itsasoko urarekin nahasteko. Bi minutu bakarrik falta ziren gaua heltzeko eta, azkar-azkar, Xixiliren gainera bota genuen edabea. Lana eginda zegoen!

Bat-batean, lo hartu genuen eta esnatzean... kaleak, errekak eta itsasoak garbi-garbi zeuden!!

Aurreko gauean, afaltzera oso berandu iritsi ginenez, zigortu egin gintuen begiraleak eta goiz osoa sukaldeko lapikoak garbitzen eman genuen; baina, ez zion axola!

Arratsaldean, Amalurrarengana joan ginen lortu genuela esatera.

—Eskerrik asko laguntzeagatik —esan zigun Amalurrak pozik.

—Baina, ez duzu uste gizakiok berriro zikinduko dugula Lur planeta?

—Bai, baina zuek azkenengo mesedea egingo didazue. Kartel hauek jarriko dituzue Euskal Herriko txoko askotan eta itsasoa zikintzearen ondorioak ikusaraziko diezue guztiei. Bideo hauek ere jarri beharko dituzue ikastolan... eta, poliki-poliki, gizakion kontzientzia aldatuko duzue. Eskerrik asko, benetan! Eta, badaezpada, gizakiek ez badute kontzientzia aldatzen, bota edabe hau Xixiliren gainera; horrela, gauero, gaur gertatu dena gertatuko da berriro!

—Ados, egingo dugu.

Horrela egin genuen eta egun horretatik aurrera askoz garbiago zegoen dena, guri esker. Baina, zoritxarrez, dena ez zegoen garbi. Bermeoko alkateak esan zigun txoko batzuetan zikinkeria agertu zela eta, horregatik, Xixiliren gainera bota behar izan genuen edabea.

Asko ikasi genuen udaleku haietan, udaleku onenak izan ziren! Beste 7 egunak primeran pasatu genituen. Abentura gehiago bizi genituen, baina horiek beste egun batean kontatuko dizkizuet.

Hurrengo urtean berriro bueltatuko gara! Seguru! Ez dakizue zenbat barre egin genuen eta gainera, beste herrietako lagun asko

egin genituen. Azkenean, Tomas arrantzalearen lagun ere egin ginen, eta asko gogoratzen gara berak kontatu zizkigun Bermeoko arrantzaleen abenturekin...

Hala bazan ala ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila mundu guztiko itsaso garbi guztietan arrantzan!



Ariane Gomez

Hirugarren taldea

Saria

IPUINA

Bizitza ez da berdina denontzat

BIZITZA EZ DA BERDINA DENONTZAT

Kaixo! Ni Ada deitzen naiz, 12 urte ditut eta afrikarra naiz. Ugandan bizi naiz. Gure bizi-baldintzak ez dira beste pertsona batzuenak bezalakoak, ez dauzkagu etxebizitza berdinak, denda handiak... Baina, hala ere, pozik bizi naiz. Bi anai-arreba, ama eta aita ditut. Nire ahizpa Abenik 8 urte ditu eta nire anaia Adiok 9. Amak Aberash du izena eta aitak Addo.

Gaur klasea daukagu. Oso ondo pasatzen dut nire gelakideekin ikasten; denok lurrean jartzen gara eta irakaslea klasea ematen hasten denean denok adi egoten gara, dena ondo ulertzeko. Ez daukagu mahairik, baina lurrean egiten ditugu lanak.

Konturatu orduko patiora joateko ordua da. Irten eta jolasten hasi gara.

Patio orduaren ondoren, azkenengo klasean, irakaslea sartu eta hizketan hasi da.

—Zuek denok, adi mesedez! Lasaitzen hasi behar zare...

Eta, bat-batean, esaldia bukatu baino lehen... Boom!!

Denok leihotik begiratu, eta bonba bat zela ikusi dutenean, irakasleak umeak lasaitzen hasi dira, guztiok garrasika eta batzuk negarrez hasi garelako. Nire gurasoak ikusi ditudanean nire anai-arrebak hartu eta aita eta amarekin elkartu gara.

Kezkatuta geundenez herritik joatea pentsatu dugu; gainera, bonba bat etxe ondoan jausi da.

Gure gauzak etxean lagata itsasontzi bat hartzea erabaki dugu, gure familiarekin eta beste ezezagun batzuekin joateko, denok geundelako itsasontzi txiki baten zain. Gasolina-pote handiak geneuzkan.

Ez geunden oso ondo pasatzen. Egun bat pasatu zen eta, gainera, mela-mela eginda geunden ez geneukalako ezer tapatzeko. Gehienbat nire amarengatik eta aitarengatik nongoen kezkatuta, familia zaindu behar zutelako eta eurak ere kezkatuta zeudelako.

Azkenean, etorri zen itxoiten geunden itsasontzi txiki hura eta bertan sartu ginen. Ez nekienez norantz gindoazen, nire amari galdetu nion:

—Ama, nora goaz?

—Tanzaniara goaz, Ada, hobeto egongo gara han —esan zidan amak.

—Abani eta Adio, lasai egon zaitezte! Amak esan dit Tanzaniara goazela eta han hobeto egongo garela.

—Beno, horrela bada... —esan zuten biek.

Ez nongoen guztiz konbentzituta hori horrela izango zenik, baina, hala ere, anai-arrebak animatzen saiatu behar nintzen.

Hiru egun pasa ziren eta oraindik ez ginen heldu amak esaten zuen leku horretara, Tanzaniara. Goseak nongoen, nire ahizpa mareatuta zegoen eta nire anaia egarrituta eta gosetuta. Ez nekien hil egingo ginen itsasontzian zeuden beste batzuk bezala edo Tanzaniara bizirik iritsiko ginen.

Bat-batean, argi bat ikusten hasi nintzen eta barku bat zela ikusi nuen; laguntzera zetozen eta poz handia eman zidan. Tanzaniara heldu ordurako oso pozik nongoen, baina baita penatuta ere, itsasontzian zeuden pertsona batzuk hilda zeudelako.

Gurasoek esan zidaten eskolara joan ahalko nintzela eta lagunak egingo nituela. Eskolan hasi nintzen egunean aitarekin sartu nintzen eta denek barre egiten zioten eta begira geratu ziren. Ez dakit zergatik; beharbada, nire herrian gerrako soldaduek egin zioten markari begira zeuden. Eurek ez dakite zelako bizitza gogorra izan dugun: gerra batean egon, gose izugarria pasatu...

Beno, hilabete batzuk pasa ondoren, lagun bat egin nuen, benetan laguntzen zidana eta nik pasatu dudana bizitza gogorraz barrerik egiten ez zuena.

Idazlearen oharra:

Ipuin hau nik asmatutakoa da, baina benetan horrelako gauzak pasatzen dira eta, gainera, gu ez gara konturatzen.

Itsasontzi txikiarena egia da, baina beti ez da egoten itsasontzi bat horrelako bizitza gogorra duten pertsonentzat, bizia salbatzeko aukera izan dezaten.

Ipuin hau egin dut ume eta familia horiei lagundu ahal izateko.



Julen Badiola

Laugarren taldea
1. saria

IPUINA
Zoriontasunaren eskuetan

ZORIONTASUNAREN ESKUETAN

Orain kontatzera noan istorio hau gaur egun Nafarroa moduan ezagutzen dugun lurraldean gertatu zen, orain dela bi mila urte baino gehiago.

Uztaileko egun eguzkitsu eta bero bat zen, eguerdiko ordu biak ziren eta jendea itzalean zegoen. Momentu horretan, ia aldi berean, Nafarroako herrixka batean, Aldai eta Orru izeneko bi mutiko jaio ziren. Aldai eta Orru lagun handiak ziren; izan ere, beraien aita lagun-minak ziren eta batera ibiltzen ziren hainbat lan egiten: ehizatzen, baserriko animaliak zaintzen, lursailak antolatzen...

Egun batean, Orru oraindik gaztea zela, bere aita ehizara joan zen, bera bakarrik. Oso eguraldi txarra egiten zuen eta azkar ilundu zuen. Orein baten atzetik zebilela lainoa sartu zen eta ez zen ezer ikusten. Hala ere, Orruren aita oreina nahi zuen ehizatu, etxera janaria eramateko, eta amildegi batetik erori eta hil egin zen.

Alde batetik, aita ez zegoen eta, bestetik, ama gaixotu egin zen eta, ondorioz, Orruk hartu behar izan zuen etxeko ardura. Orruk beste lau anai-arreba gazteagoak zituen eta ez zuten denentzako janaririk, herrixka oso leku malkartsuan baitzegoen eta lurretik ez baitzen asko jasotzen. Etxean zituzten animalia guztiak saldu eta anai-arreba guztien artean banatu zuten dirua.

Anai-arreba guztiak, bakoitzak bere bidea harturik, beste herrixka oparoagoetara joan ziren bizimodu hobeagoaren bila. Baina Orru ama zaintzen gelditu behar izan zen, anai-arrebetan nagusia zelako.

Orruk hogei urte bete zituenen ama hil egin zen. Lehenengo hilabeteetan bera bakarrik bizi izan zen, baina bere lagun Aldaik, Orruren egoera ikusi zuenean, bere etxera bizitzera gonbidatu zuen.

Aldaik bost anai-arreba zituen eta orain beste anaia berri bat zeukan. Hasierako egunak oso gogorak egin zitzaizkion Orruri; nahiz eta familia oso ondo ezagutu, bere ama galtzeak min handia egin zion, asko maite baitzuen. Bestalde, oso gogorra egiten zitzaion bizita berria; lan asko egin behar zen, zortzi aho zeuden jateko, baina bakarrik lau pertsonen artean lortu behar zuten dirua eta jatekoa, Orru, Aldai eta honen aita eta ama. Goizean goiz esnatzen ziren eta ilundu arte gogor lan egiten zuten: etxeko animaliak zaindu, lurra erein, ehizatu...

Lehorte baten ondorioz, ereindako landare askok ez zuten fruitu eta barazkirik eman eta animalia asko hil egin ziren. Herrixkan bizi ziren guztiek elkarri laguntzen zioten, baina ez zegoen guztientzako janaririk. Garai oso gogorra zen herrixkako biztanle guztientzat.

Aldairen aitak Orru eta Aldairekin hitz egin zuen. Zerbait egin behar zuten familia aurrera ateratzeko eta, horretarako, norbait beste lurralde batera joan behar zen, bertan dirua irabazi eta animalia berriak erosteko. Aldai eta Orru ziren nagusienak eta horrela egin zuten. Aitak, etxean aurreratuta zutenaren zati handi bat eman zien, eta Pirinioak zeharkatu eta bestaldean zegoen herrixka aberats batera joateko jarraibideak ere eman zizkien.

Gauzak horrela, lau egunez oinezko bidea egin zuten Pirinioak zeharkatuz, eta ibai handi baten ondoan zegoen herrixka handi batera heldu ziren. Beste hizkuntza batean hitz egiten zuten bertako biztanleek, baina esku-zabalik hartu zituzten. Animaliak zaindu eta lurra lantzearen truke ostatua eta diru apur bat ematen zieten. Hizkuntza berria ikasi zutenean beste lanbide batzuk ikasi zituzten. Orruk brontzea lantzen ikasi zuen eta Aldaik arotzaren ogibidea. Biek dirua irabazi zuten.

Lanaz haratago biak beti batera ibiltzen ziren. Egun batean, ilunabarrean, lanak bukatu ondoren, ibai ertzean zeuden lan-egun gogorraren bukaera ospatzen, eguzkia sartzen ikusten zeuden bitartean, eta Orruk Aldairen eskua hartu zuen. Orruk zerbait berezia sentitzen zuen, lagun oso onak baino gehiago ziren. Aldaik Orruren eskua sentitu zuenean ezustean, berak ere zirrara berezia sentitu zuen. Maiteminduta zeuden, baina bi gizonezko ezin ziren maitemindu eta, berehala, Aldaik Orruren eskua askatu zuen. Aldai konturatu zen inoiz baino zoriontsuagoa zela Orruren ondoan, baina etxera bueltatu behar zen, gurasoak eta familia eurek irabazitako diruaren zain egongo ziren eta.

Gau batean, Orruri ezer esan gabe, Aldaik ihes egin zuen. Alde batetik etxera bueltatzeko beharra zuen, eta beste aldetik, nahiz eta Orru maitatu, ezinezko maitasuna zen; inork ez zuen onartuko bi gizonezko haien arteko harremana.

Etixerako bidean, beste herrixka batean, bi behi, hainbat oilo eta oilar bat erosi zituen gurdi batekin batera, eta horrela bueltatu zen etxera. Etxean pozik hartu zuten Aldai eta berak ekarritako aberastasunei esker, familia aurrera ateratzea lortu zuten. Orrurengatik galdetu zioten eta etxean esan zuen ez zuela nahi izan bueltatzea.

Aldaik ihes egin eta hurrengo egunean konturatu zen Orru bere bihotzeko pertsona galdu zuela. Egunak eta gauak gogorak ziren Aldairik gabe eta jateari utzi zion. Bestalde, Aldai ere triste bizi zen, Orruren ondoan zuen bizipoza galdu baitzuen. Ezin zuen Orru burutik kendu, baina bizitzan aurrera egin behar zuen eta herrixkako neska gazte batekin ezkontzea pentsatu zuen, Orru guztiz ahazteko. Orrurentzat Aldairen hutsunea hain zen handia herrixkara bueltatzea pentsatu zuela.

Orruk hain zuen nahigabe handia, negua izan arren, bidaiari ekitea erabaki zuela udaberriaren zain egon gabe. Pirinioak zeharkatzea

oso gogorra zen neguan, baina gogorragoa zen Orrurentzat Aldairik gabe bizitzea. Mendi lerro guztia elurtuta zegoen eta oinezko bidea ez zen batere erraza. Igarobide batzuk izoztuta zeuden eta beste bide batzuetatik egin behar zen bidaia, askoz luzeagoa. Oinak bustitzean, hotza hezurretaraino sartzen zen. Ez zebilen inor bide haietatik eta Orruk bakar-bakarrik egin zuen bide guztia, zorroan hartu zuen ogi zati batekin eta satoan zuen ardo pixka batekin. Zortzi egunen ondoren herrixkara heldu zen, oso ahulduta eta erdi gaixorik.

Herrixkara goizaldean heldu zen eta ikusi zuen lehen pertsona Aldai izan zen. Elkarri begietara begiratu eta ezer esan gabe elkar besarkatu zuten eta horrela egon ziren denbora luzez. Bien arteko sentimenduak bizirik zeuden. Denborak eta distantziak ez zuen apurtu maitasunak elkartu zuena. Gero, biak batera etxera bueltatu ziren eta etxekoekin bat egin zuen berriro Orruk. Egun polita izan zen, afari ederra egin zuten Orruren buelta ospatzeko. Denak lotaratu zirenean Aldai eta Orru sutondoan gelditu ziren, biak bakarrik. Aldaik Orruri kontatu zion ezkontzeko asmoa zuela. Orruk begiak malkotan zituen, baina ez zuen ezer esan, ulertzen zuen bien arteko maitasun istorioak ez zeukala etorkizunik eta bakoitzak bere bidea egin behar zuela.

Ezkontza egunean, goizean goiz, Aldai herrixkako arbasoak hilobiratzen zituzten mendi-tontor batera joan zen, bera bakarrik, eguzkia irteten ikustera. Aldai eta Orru jaio zirenean bezala, egun eguzkitsua zetorren eta goizeko eguzki izpiak Aldairen aurpegia berotzen hasi zirenean Orru agertu zen.

Esku artean zerbait zeukan, oihal batean batuta. Orruren ezkontzako oparia zen bere bihotzeko Aldairentzat. Orruk esan zion Pirinioen bestaldean, bakarrik gelditu zenean, elkarrekin bizitako momentuak oroitzeko egindako irudi bat zela. Bazekiela noizbait elkar ikusiko zutela berriro eta emateko momentua heldu zela. Aldaik eskuetan hartu eta besarkada batekin eskertu zion oparia, baina ez zuen oihaletik atera eta etxean gorde zuen. Ezkontza eguna ederra izan zen. Antxume bat hil zuten ospatzeko eta ospakizunaren ondoren,

ezkonberriak Aldaik bere gurasoen etxe ondoan egin zuen etxetxora joan ziren bizitzera. Orru, oster, Aldairen gurasoen etxean gelditu zen.

Gau hartan, lotan zeudela, Orruk zaratak entzun zituen eta ke usaia sumatu zuen. Jaiki eta erromatar soldadu talde handi bat ikusi zuen herrixkara hurbiltzen. Etxekoak esnatu ondoren, Aldairen etxera joan zen eta hura eta emaztea ere esnatu zituen. Erromatarrek herrixka inbaditzera zetozen. Umeak eta emakumeak ihesean bidali zituzten eta gizonezkoak herrixka defendatzen gelditu ziren. Erromatarrek gehiago ziren eta herrixkako gizonek etxeen barrualdean itxarotea erabaki zuten, horrela zailagoa egingo baitzitzairen erromatarrei guda.

Aldai bakarrik gelditu zen bere etxean eta ondoko etxean Orru eta Aldairen aita zeuden. Momentu batean, Orruk Aldairen etxea sutan ikusi zuen. Aldairen etxera heldu zenean, dena sutan zegoen baina, hala ere, Aldairen bila joan zen. Jendeak ez sartzeko esaten zion, hilda egongo zela eta ez zuela merezi salbatzera joatea bere bizitza arriskuan jarriko zuelako, baina Orruk ez zuen bi aldiz pentsatu eta barrura sartu zen. Orruk Aldai ateratzea lortu zuen, baina hilda zegoen. Bertan zeudenek alferrik izan zela esaten zioten, baina berak ezetz esaten zuen, barrura sartu izan ez balitz ez zukeela lortuko berarengandik agurtzea eta benetan sentitzen zuena esatea.

Baina, bere laguna eskuetan zuela, atzetik erromatar batek ezpata sartu zion eta lurrera erori zen. Aldaik Orruk goizean oparitu ziona zeukan eskuetan eta biak elkarren ondoan hil ziren eskutik helduta. Orru eta Aldai biak lurrian hilda zeuden bitartean erromatarrek herrixka guztia suntsitu zuten eta ahal izan zuten guztia lapurtu zuten. Herrixka guztiz abandonatu zen eta inoiz ez zen gehiago inor bertan bizi izan. Orru eta Aldai izan ziren bertako azken bi biztanleak.

Bi mila bat urte beranduago, Orru eta Aldai jaio ziren moduko egun bero batean, Leire Malkorra Aranzadiko ikerlariak, Irulegiko herrixkaren indusketa lanetan ari zela, Orruk Aldairi egindako oparia

IPUINA

aurkitu zuen; brontzeko esku baten itxura zuen irudi bat zen eta hainbat letra ikusten ziren. Gainean zuen lurra kendu eta bertan “sorioneku” irakurtzea lortu zuen.

Elene Diaz

**Laugarren taldea
2. saria**

IPUINA
Galdutako denbora

GALDUTAKO DENBORA

Ordua iritsi da.

Ez zait erraza egiten, baina badakit beharrezkoa dela sartu eta bere gauzak biltzea. Bere kamisetak, liburuak, diskoak eta margoak lurrean botata daude, bere hobby guztiak gela batean sartuta, bere gordelekuan. Ohea egin gabe dago, zapatak lurretik botata eta dena hautsez beteta. Laster isuri nuen lehenengo malkoa. Senarrari deitu nion dena jasotzen laguntzeko, indartsuagoa izaten saiatu da bi hilabete hauetan, baina ez du ezertarako balio izan. Biok negarrez amaitu dugu gure alabaren gelan.

Gure Leah maitea. Izenak adierazten duen bezala, bere ezaugarriak indarra eta ausardia ziren. Edo hala uste genuen, duela 2 hilabete, urtarrilaren 18an, bere buruaz beste egin zuen arte, eskerrak emateko gutun bat utziz bakarrik. Kanpotik emakume ausarta eta indartsua ematen zuen gure alabak, barrutik, aldiz, apurtuta zegoela dirudi. Fisikoki, neska oso erakargarria zen, begi berdekoa, altua, nahiko argala eta ile marroi luzea zuen, ni bezalakoa! Nahiko “frikia” zela onartuko dut, beti irakurtzen egoten zen musika entzun bitartean. Etxean beti margoekin ibiltzen zen, zikin-zikin, eta dantza egiten zuen musika lasaiarekin. Beti jertseak eta elastikoak janzen zituen.

Familia oso suntsituta geratu ginen, nire aldeko familia osoarekin urtero joaten gara hilerrira eta berarentzat abesten dugu, ondoren nire ilobak egindako koadroak lagatzen ditugu bertan. Mikel nire senarraren familiaren aldetik bazkari bat egiten dute bere urtebetetze egunean. Leah oso berezia zen familia osoarentzat, izan ere, logela

itxita laga genuen, orain arte.

Nire gizona lanera joan da eta nik logelan jarraitzen dut oraindik. Zerbait jasotzeko gai izan naiz baina, gero, negarrez bukatu dut ohean sartuta. Alde batera buelta ematean liburu arraro bat aurkitu dut, azal marroi bigunekoa eta soka bat du hau itxita mantentzen duena. Nire alabaren izena du azalean, bere egunerokoa zen! Tentagarria egiten zait irekitzea eta bere azken egunak nolakoak izan ziren ikustea. Badakit ez dagoela ondo, bere egunkari pribatua baita, oso pertsonala, baina ezingo nintzateke lasai bizi liburu hori irekitzen ez badut.

Soka askatu eta kontu handiz zabaltzen hasi naiz. Lehenengo data orain dela 5 urtekoa da, DBH 1eko lehenengo egunean. Marrazkiak zeuden orri guztietan egunak deskribatzen. Batean ikastola bat, bestean familia, beste batean musika notak... Denetan pozik dagoela dirudi. DBH 4 iritsi zen arte, lagun gabe gelditu zen, bakarrik zegoen eta irainak jasan behar zituen egunero. Zergatik ez nintzen konturatu gaizki zegoela? Ama txar bat al naiz?

Lagun gabe gelditu zenean denak bere kontra zeudela pentsatzen zuen, irakasleak barne.

Ondoren batxilergoa heldu zen eta hemen hasten da dena...

2022/09/07 Eguneroko maitea:

Gaur nire lehen eguna izan da batxilergoan, eskola berrian, irakasle berriekin eta ikaskide berriekin. Azken hau ez zait asko axola, ez baitut lagunik egingo beti bezala. Norbaitekin fidatu nintzen azken aldia, nire lagunik onena eta nire mutil-laguna nire aurrean musukatu ziren. Harrezkero ez dut lagunik izan. Lehen egun hau izugarria izan da, jende guztia lagunekin klaseetan hitz egiten eta nik irakaslea entzun behar izan dut. Bazkarian, ia bezala egin dut, zuhaitz baten azpian

kaskoekin eseri eta irakurtzen hasi naiz, hori baitzen nire bizitzaz ahazten laguntzen zidan gauza bakarra. Galdetuko duzu, zergatik ez diezu gurasoei esaten? Zentro psikiatriko batera bidaliko nauten edo txorakeria bat dela pentsatuko duten beldur naizelako.

Nire gelako tiraderan ni baino zoriontsuago izango zarela espero dut.

Zurea,

Leah

2022/10/11 Eguneroko maitea:

Gaur mutil eder bat ikusi dut korridoreetan. Nola ez nuen lehenago erreparatu? Burua beti Saturnoko ilargian dudalako izango da, nire amak dioten bezala. Saskibaloi-taldeko kapitaina da eta eskolako mutilik ezagunena. Hau da, niretzat eskuraezina den norbait eta, gainera, ez zait batere gustatzen. Hirugarren klasearen ondoren gure begiradak elkartu egin dira eta jendeak aipatzen dituen tximeleta horiek sentitu ditut. Berarekin hitz egitera hurbiltzea pentsatu dut, baina arraroa naizela pentsatuko luke, beste guztiek bezala.

Eskerrik asko entzuteagatik.

Zurea,

Leah

2022/11/09 Eguneroko maitea:

Nork pentsatuko luke saskibaloiko kapitainak niri hitz egingo lidakeela? Nik ez eta zuk ere ez. Markel du izena, eta gaur, bere mezua jasotzean, ia saltoka eta oihuak hasi naiz. Arratsaldeko lauretan mezuari erantzun gabe jarraitzen nuen, ez nekien zer erantzun. Bere mezua honakoa zen: "Aizu, korridoreetan ikusi zaitut eta neska interesgarria zarela iruditu zait. Zure telefonoa eskatu behar izan diot tutoreari larrialdi bat zela esanez. Nahi duzunean geratu gaitzke, ezagutu nahi zaitut eta. Markel." Zer suposatzen da erantzun behar diodala horri? Txantxa bat izango da? Jolas bat?

Esadazu zuk horretaz guztiaz pentsatzen duzuna.

Zurea,

Leah

Markelek mutil interesgarria dirudi. Nire Leah maiteminduta zegoen! Baina galderak egiten egon naiz momentu guztietan, zergatik ez zidan ezer esan? Ez du niregan konfiantzarik? Ama hain txarra izan al naiz?

2022/11/10 Eguneroko maitea:

Azkenean, mezua erantzun nuen eta bai, geratu egin gara larunbaterako. Zinemara joan behar gara eta ondoren buelta bat ematera parke batera. Oso pozik egon naiz klaseetan, ezin dutut nerbioak jasan. Etxera abesten heldu naiz, abesti alaiak eta erritmo ona zuten kantak.

Iritsi naizenean nire ama garrasi egiten hasi da, beti bezala haserre aitak edo nik egindako zerbaitengatik. Ez badago lanean etxean dago kezaka, desesperagarria da! Nire logelara heldu, mugikorra piztu eta Markelekin hitz egiten pasatu dut arratsalde osoa. Oso gustura sentitzen naiz mutil honekin. Larunbatean bueltako naiz kontatzera!

Zurea,

Leah

2022/11/12 Eguneroko maitea:

Goizeko ordu bata da eta bai, oraintxe bertan heldu naiz etxera. Egum zoragarria izan da, nire bizitzako onena. Zinemam nire gustuko filma aukeratzen laga dit eta gero bientzako krispetak erosi ditu. Eskutik heldu dit eta berriro tximeletak sentitu ditut, eta film osoan irribarre bat izan dut ezpainetan. Irten garenean, buelta bat eman dugu gertu zegoen parke batetik, bizitzari buruz hitz egiten genuen bitartean. Pentsatzen nuena baino interesgarriagoa da mutil hau, ez da besteak bezalakoa. Markel zabaltu egiten da beldurrik gabe nirekin eta ez dit irain bat bera ere esan nire janzkera edo izateko moduarengatik. Berarekin hitz egiteko eta geratzeko asmoa dut.

Benetan dut gustuko Markel.

Zurea,

Leah

2022/11/30 Eguneroko maitea:

Markelen lagunik onena bihurtu naiz edo hori esaten du berak. Ikastolan batera ibiltzen gara eta beste nesken begiradak sentitu ahal ditut atzetik. Kotxez jasotzen nau eskolara eramateko eta korridoreetan besarkatuta izaten nau. Bere partida guztietara joaten naiz eta bere saskiratze gehienak dedikatzen dizkit. Ikastola bukatzerakoan bere etxera joan gara etxeko-lanak egiteko. Azkenean, film bat ikusten gelditu ginen eta lokartu egin naiz film erdian. Beste lagun bat egin dut gaur, neska oso jatorra da eta irakurketa klub batean ezagutu dut.

Nire bizitza hobetzen dagoela dirudi!

Zurea,

Leah

Markel oso mutiko ona dela dirudi, nire alaba oso zoriontsu izan zen berarekin. Agian ni ez nintzen konturatu bere aldaketarekin lanean ordu gehiegi ematen ditudalako eta gero oso nekatuta heltzen naizelako. Egia da, azkenaldi honetan oso ahaztuta nituen nire senarra eta alaba eta oso haserre egoten nintzen egunero. Negar egiten hasi baino lehenago irakurtzen jarraitu dut.

2022/12/21 Eguneroko maitea:

Hilabetea oso azkar pasatu da eta laster Gabonak izango dira! Nire hilabeterik gustukoena izan da, Markelekin pasatu ditut egun guztiak eta baita nire lagun Nahiarekin ere. Markel eta ni gertuagokoak egin gara eta gaur nire lehenengo musua eman diogu elkarri! Oso harrigarria

izan da hasieran, baina gero oso polita izan da, ez nuen espero. Gaur ere irteera batera joan gara elkarrekin, Donostiara argiak ikustera eta erosketak egitera. Oporrak hartu genituen atzo bertan eta oso lasaituta egon naiz. Dena horrela jarraitzea espero dut benetan.

Zurea,

Leah

2023/01/02 Eguneroko maitea:

Negarrez pasatu dut egun osoa, ohean botata eta musika altu jarrita, nire gurasoak ez entzuteko. Nahia etxera etorri da nola nengoen ikusteko eta dena kontatu diot. "Gaur Markelekin geldituta nengoen, gure betiko parkean, eta lekura heldu baino lehenago Markel mutil batekin hitz egiten zegoen. Apustu bati buruz ari ziren hizketan. Mutila Markel zoriontzen zegoen eta Markel isil-isilik zegoen. Niregana hurbiltzeari buruzko apustu bat zen eta mutila Markeli 20 euro ematen ari zen. Markelek isilik jarraitzen zuen eta zuri-zuri zegoen. Orduan konturatu nintzen gertatutako dena jolas bat zela berarentzat, irabazteko apustu bat, neska frikia konkistatuko zuen ala ez jakiteko. Garrasika gerturatu nintzen Markelengana azalpen bat eskatzen eta bere laguna ere zuri gelditu zen. Markel azkar hitz egiten hasi zen: apustuarena egia zela, baina denbora pasatzerakoan bere sentimenduak egiazko bihurtu direla, neska oso berezia naizela.... betikoa. Korrika joan naiz lekutik eta orain hemen nago." Nahiak momentuan besarkatu nau eta ohera bota da nirekin egoteko.

Dena zapuztu da momentu batean.

Zurea,

Leah

2023/01/10 Eguneroko maitea:

Gaur Markel ari zen deika eta gero Markelen amak deitu didanean hartu egin dut, azkenean; oso larria izan behar zen bere amak deitzeko. Bere amak esandakoa entzuterakoan harrituta gelditu naiz, Markeli minbizia aurkitu diotela esan dit. Nire mundua buruz behera ipini da segundo batean. Apustuarena gertatu ondoren, Markel egunero saiatu da nirekin hitz egiten, hasieran alde batera egiten nion baina azkenean azaltzen utzi nion. Lagun, ezagun bezala gelditu ginen momentua oraindik ahaztu ez arren. Berri hau jasotzerakoan korrika joan naiz ospitalera eta han zegoen Markel kablez inguratuta ohe batean. Antsietate atakea eduki nuenean ere horrela egon nintzen hiru egunez. Berrero taupadak igotzen ari zirela sentitu nuen, itomen-sentsazioa, dardarak, hotzikarak, beldurra eta goragaleak itzuli ziren momentu horretan, zorabiatu arte. Etxera heltzean, ospitalean lau orduz egon ondoren, nire amak garrasika jarraitzen zuen. Oraingo honetan nire aita ere garrasika ari zen, biak borrokatzen.

Behar dudan guztia da eguna ondo bukatzeko.

Zurea,

Leah

2023/01/17 Eguneroko maitea:

Markelen minbizia eta nire antsietatea txarrera joan dira, asko larrituz. Nire gurasoekin egoera pixka bat hobetu arren, ez zen oso harreman ona. Nahia alden du egin da, mutil-laguna topatu duelako eta nirekin haserretu da arrazoirik gabe. Ba al du zentzurik bizirik jarraitzeak? Bizitza horrelakoa izan behar bada nahiago dut hilda egotea. Badakit, oso gogorra dela hori pentsatzea, baina nire bizitza oso txarra da, bizitza ziztrin bat. Nire bizitzako azken orria bukatu ondoren nire gurasoentzat eta Markelerentzat gutun bat idatzi dut guztiarengatik eskerrak emanez. Orain ezin dut ezer gehiago esan edo pentsatu, antsietatea, depresioa, gelakideen irainak eta bakardadea bueltatu dira eta ez dut berriro hortik igaro nahi. Nire gurasok hau irakurtzen badute egunen batean, asko maite ditudala jakin dezaten nahi dut, ez izan arren beti alaba perfektua.

Agur esango dizut eguneroko maitea. Eskerrik asko 5 urtez entzuteagatik eta beti hor egoteagatik.

Eskerrik asko ama eta aita niregatik egindako guztiarengatik, beti zainduta eta babestuta sentitu naiz.

Eta azkenik, eskerrik asko Markel, traizionatu arren, lagun ona izaten jarraitu dizulako.

Mesedez, minbiziaren aurka borrokatzen jarraitu niregatik.

Zuena,

Leah

IPUINA

Markel orain dela aste bat hil zen, zurekin egongo da hor goian. Jakin ezazu borrokatu zuela gogor gaixotasunaren aurka, baina ezin izan zutela ezer egin. Bere gurasoen lagunak egin gara eta asko hitz egiten dugu zuei buruz. Barkatu garrasi guztiengatik, barkatu zuri ez entzuteagatik, barkatu zure bizitzako azken egunetan ez egoteagatik laguntzan, benetan barkatu, alaba. Negarrez hasita nengoen orain dela asko, baina orain gogorrago negar egiten hasi naiz. Nire Leah-k gauza asko pasatu ditu eta nik erdia ere ez nekien; ama txar bat izan naiz eta hori bizitza osoan gogoratzen jarraituko dut. Zure egunerokoa hartu, hilerrira joan eta zurekin lurperatu dut, zauden lekuan zurekin eduki dezazun, beharrezkoa izango duzu eta.

Guraso bat bazara, gogoratu beti, konfiantza eskaini zure umeei, dena kontatzeko beldurra ez izateko edo ignoratuak ez sentitzeko, nire kasuan bezala.



Ane Ibarra

Laugarren taldea
3. saria

IPUINA
Ardien munstroa

ARDIEN MUNSTROA

Orain dela urte asko, zehazki 2002. urtean, Iratxe izeneko neska abenturazale eta mendizale bat zegoen, eta haren lagun-mina Markel zen. Markel mutil kirolaria zen, baina oso beldurtia. Negua pasa ostean, eguzkia irteten hasi zenean, Goierriko plaza batean zeuden lasai asko eta Iratxek ideia bat izan zuen, mendira joaten hasi nahi zuen berriro. Horregatik, egun batean Markeli esan zion:

—Markel joango gara bihar mendira? Irrikan nago Txindokira joateko.

—Ados, baina han ez egin gauza arrarorik, badakizu nik gaizki pasatzen dudala —erantzun zion Markelek.

—Ongi da, utzi motxila prest, bihar goizean goiz joango gara —agindu zion Iratxek Markeli.

Hurrengo egunean, goizeko zortzietan esnatu, plazan elkartu eta Txindokirantz abiatu ziren. Bidetik zihoazenean ardi-hezur batzuk aurkitu zituzten. Ez zuela axola pentsatu zuten, naturan baitzeuden... baina, zenbat eta gorago, orduan eta ardi-hezur gehiago aurkitzen zituzten.

Gutxi gorabehera ibilbidearen erdiraino heldu zirenean, artalde handi bat aurkitu zuten, baina artaldearen erdia baino pixka bat gutxiago hilda zegoen. Markel oso urduri jarri zen eta ia-ia botaka hasi zen. Iratxe Markel lasaitzen saiatu zen, pixka bat lortu zuen, baina Markelek gaizki sentitzen jarraitu zuen.

Markel lasaitzen zegoen bitartean, Iratxe pistak bilatzen hasi zen, han gertatzen zena normala ez zela pentsatzen zuelako. Horrenbeste hildako ardiren gertakizunak azalpenen bat izan behar zuela uste zuen. Bizpahiru ordu pasa zituzten han inguruak aztertzen. Orduan, mugitzea pentsatu zuten aspertzen ari zirelako, jada.

Txindokira heltzeko oraindik ordu bat falta zitzaien eta eguzkiak gehiegi berotu aurretik heldu nahi zuten. Gehien nahi zutena zen bistak ikustea eta bertako aire garbia arnastea. Azkenean lortu zuten.

—Zeinen ederra! —esan zuen Markelek

—Bai horixe —erantzun zuen Iratxek—. Esan nizun bista paregabeak zeudela hemendik.

Bistez gozatzen zeuden bitartean, Iratxek hainbat kobazulo aurkitu zituen, gainera handiak ziruditen. Ardien gertakizunarekin eta kobazuloekin hainbat hipotesi egin zituen, baina Markeli ez esatea pentsatu zuen, ideia tonto bat zela pentsatzen zuelako. Bokata jan eta beherantz joan ziren. Beraien herrira heldu zirenean, Goierriara, leher eginda zeuden, agurtu eta bakoitza bere etxera joan zen.

Gaua heldu zen, baina Iratxek ezin zuen lorik hartu, ardien hezurretan pentsatzen ari zelako. Hainbat hipotesi zituen buruan bueltaka: ardiak bata bestearekin borrokatu zirela, pertsona maltzur batzuek ardien artilea nahi zutela eta errazago lortzeko hil egin zituztela, munstro batek jan zituela... Burutik kentzen ahalegindu zen eta azkenean lortu zuen, baina burutik guztiz kentzeko, berriz ere Txindokira joateko ideia izan zuen. Goizean, Markeli deitu zion:

—Markel, lagunduko didazu berriz Txindokira? —galdetu zion Iratxek.

—Ezta pentsatu ere, oso gaizki pasa nuen.

—Mesedez!

—Ez!

—Etorri, mesedez! Gero nahi duzunarekin lagunduko dizut. Bai?

—Ados, baina ez dadila berriro beste eguneko gertatu.

—Ongi da. Noiz zaude libre?

—Etzi

—Ados. Agur eta eskerrik asko!

Eguna heldu zen. Oraingoan goizeko hamarretan elkartu ziren, presarik gabe, baina Iratxek ez zion esan Markeli kobazuloetara joango zirenik.

Markelek pentsatzen zuen mendi buelta normal bat egingo zutela, aurrekoan ezin izan zutelako egin. Markel bide normaletik zihoan, baina Iratxe kobazuloetara zihoanez Markelek galdetu zion:

—Nora zoaz Iratxe? Hemendik da bidea —esan zion Markelek.

—Gauza da... ez garela gora joango —esan zuen xuxurlaka Iratxek.

—Eta orduan, nora joango gara? Beldurra ematen didazu —esan zuen beldurtuta Markelek.

—Aurrekoan ikusi nuen kobazulora. Uste dut ardiekin lotuta dagoela.

—Ardiak! Ez, ez! Ni ez naiz hara joango! Esan nizun ez nintzela joango —kexatu zen Markel.

—Bueno, ba ni bakarrik joango naiz —esan zuen Iratxek.

—Ez, ez joan! Ez utzi bakarrik —esan zuen Markelek, etsita—. Zurekin joango naiz.

Iratxek nahi zuena lortu zuen. Kobazulorantz abiatu ziren. Iratxe oso lasai zegoen, baina Markel... oso oso larrituta. Heldu ziren, motxilatik linternak atera eta barrurantz joan ziren. Oso handia zen kobazuloa, zazpi metro inguruko altuera izango zuen, eta oihartzun handia zegoen han barruan.

—Kaixo! —esan zuen Iratxek.

Eta berehala entzun zen: kaixo, kaixo, kaixo...

Alde batera eta bestera begira hasi eta hainbat hezur aurkitu zituzten, gero eta gehiago. Orain Iratxek bazekien zuzen zegoela. Urrutira soinu bat entzun zuten, zurrunga bat zirudien. Gerturatu ahala gero eta ozenago entzuten zuten. Kobazuloan ateak eta gelak ziruditen gauzak zeuden, etxe bat zirudien. Ate bat zeharkatu zuten eta munstro bat aurkitu zuten lotan. Gizaki forma zuen gutxi gorabehera.

—Ni kanpora noa, Iratxe. Ezin dut! —xuxurlatu zuen Markelek urduri.

—Markel, ez! Galdu egingo zara —ohartarazi zion Iratxek.

—Ez zait axola.

—Behintzat, hartu linterna —esan zion Iratxek.

Markeli, oso urduri zegoenez, eskuetatik jauzi zitzaion linterna eta, orduan, munstroa esnatu zen.

—Nor dabil hor? —galdetu zuen munstroak.

Iratxek ahoa estali zion Markeli eskuarekin.

—Ez hitz egin! —xuxurlatu zuen Iratxek—. Etorri nire atzetik!

Markelek buruarekin baietz adierazi zion.

Kobazulotik makur-makur eginda irteten hasi ziren, baina munstroa ere kobazulo kanporantz zihoan. Markel eta Iratxe ez ziren konturatu, baina munstroak bazekien norbait zegoela bertan.

—Nor dabil hor? —esan zuen munstroak.

—I, I, Iratxe —esan zion beldurrez hilda Markelek Iratxeri.

Iratxe Markelenganantz biratu zen, baina ikusi zuenean, jada, Markel lurrean zorabiatuta zegoen, beldurak guztiz jota. Konturatu orduko munstroak Iratxe eta Markel harrapatu zituen eta hezurrez egindako aulki handi batean laga zituen.

—Zer egin behar diguzu? —galdetu zuen Iratxek beldurtuta.

—Ezer ez! —esan zuen munstroak.

—Itxaron! Euskaraz hitz egiten duzu? —galdetu zion Iratxek harrituta.

—Bai, noski. Ez duzu ikusten? —erantzun zuen munstroak.

Markel esnatu egin zen, baina munstroa bere parean zegoenez eta hezur-aulki batean jarrita zegoenez, berriz zorabiatu zen.

Iratxek eta munstroak hizketan jarraitu zuten, gauza batek bestera eraman zituen eta, konturatu gabe, munstroak menditik irteten nahi zuela aitortu zion. Iratxek, oso eskuzabala zenez, laguntzea erabaki

zuen. Lehenik Markel esnatu zuten eta dena azaldu zioten. Markel ez zegoen oso ados, baina munstroa oso desesperatuta zegoela ikusirik, berak ere laguntzea erabaki zuen. Motxilatik arropa pixka bat atera zuten eta itxura aldaketa bizkor bat egin zioten. Ez zen oso zaila izan.

—Nongoa zara? Nolatan dakizu euskaraz hitz egiten? —galdetu zion Markelek.

—Nire hizkuntza da. Txikitan ikasi nuen amonaren baserrian. Hura hil zenean bakarrik gelditu nintzen. Baserriak su hartu zuen, tximista batek jota, eta bakarrik gelditu nintzen, familiarik eta etxerik gabe.

—Gaixoa! —esan suen Iratxek.

—Beraz, ez zara munstro bat! —esan zuen Markelek.

Goierrira heldu ziren. Jendeak ez ikusteko, badaezpada, atzeko kaleetatik joan ziren. Atari batetik emakume oso zahar bat irten zen. Iratxeren, Markelen eta munstroaren ondotik pasa zen eta munstroari begira gelditu zen, zur eta lur.

—Joxe Mari? —galdetu zuen emakume zaharrak.

—Zer? —erantzun zuten Markelek eta Iratxek.

—Gizon hori Joxe Mari deitzen da —esan zuen emakumeak.

—Zergatik diozu hori? —galdetu zuen Markelek.

—Nire ume galduaren begi berdin-berdinak dituzu —esan zuen emakumeak.

—Ezinezkoa da —esan zuen munstroak.

—Ez, ez nabil oker! Badakit nire semea zarela. Oso ondo

gogoratzen ditut zure begi ederrak eta zure bizkarreko jaiotzako marka.

—Zein marka? —galdetu zuen Iratxek.

—Bizkarraren beheko aldean izar itxurako jaiotzako marka daukazu —esan zion emakumeak munstroari.

—Eman buelta eta erakutsi iezaguzu bizkar hori —esan zuen Markelek ilusio handiz.

Munstroak bira eman eta alkandora jaso zuen. Emakumeak esan bezala han zegoen izarra.

—Joxe Mari! Nire seme galdua! Non egon zara bizitza osoan? Nora eraman zintuen sorgin gaiztoak? —emakumea negar batean hasi zen, emozio asko elkartu zitzaizkion, poza, negarra, amorrua...

Begietara begiratu eta besarkada sakon batean murgildu ziren.

Iratxe eta Markel pozez gainezka zeuden. Nork esan behar zien beraien mendizaletasunak eta abentura gogoak bi pertsonen bizitza aldatuko zutenik?

Emakumeak semea etxera eraman zuen.

—Seme ongi etorri zure etxera! Denbora berreskuratu eta eguneratu beharra daukagu —esan zuen amak.

—Munstroa, Joxe Mari, semea... zenbat izenekin deitu nauzuen gaurkoan —esan zuen begiak negar malkoz beterik zituela—. Eskerrak eman nahi dizkizuet guztioi.

Herrian bizkor zabaldu zen Joxe Mariren berria. Ongi etorri festa

IPUINA

ospatu zuten herriko enparantzan. Handik aurrera Joxe Mariren eguna ospatu zuten; bere ohorez eta galdutako pertsona guztien ohorez egiten zuten.

Eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Goierriko plazan.



Maddi Martin

Bosgarren taldea
1. saria

IPUINA
Esan izan banio

ESAN IZAN BANIO

Amonak, kanpai hotsekin bat itxi zituen begiak, azken irribarrea amari eta niri eskainiz. Sortu berri zen isiltasun hura ospitaleko monitoreen soinu luzeek bete zuten. Amari begiratu nion, elurra bezain zuria zuen aurpegia, elkar besarkatu eta orduan hasi ziren negarrak, baita haserrearekin borrokak ere.

Ordurako, eguzkiaren argia erretiratzeko hasia zen, eta banekien luze iraungo zuela aurrean nuen gauak. Korridorera atera nintzen haize garbiaren esperoan. Orduantxe ulertu nuen zer zen benetako ospitale bat, paretak zuriak izan arren, iluna zen bertako giroa. Irribarreak ikusezinak ziren bertakoen artean.

Kafe-makinaren bila luzaz ibili ondoren, aurkitu nuen azkenean. Bertan, agure batekin egin nuen topo, elkar begiratzean ulertu genituen bata besteari begiradak.

Halako batean, hizketan hasi zitzaidan.

—Laguntzarik behar al duzu?

—Horren galdurik ikusten al nauzu? —esan nion irribarre txiki batekin.

—Aurpegi ezezaguna zait zurea, hemen gehienok elkar ezagutzen dugu.

—Egia esan, lehenengo eta azkenengo eguna izango da hemen

elkar ikusten duguna. Amonari azken agurra ematera etorri naiz, eta zendu berri da.

—Asko sentitzen dut.

—Ezer ez da betiko, eguna iritsi behar zitzaion, eta gaur izan da. Datorren astean beteko zituen 93 urte, baina esango nuke azken urte hauetan bizi baino gehiago iraun egin duela. Eta orain, neure burua heriotzak sortu berri dizkidan beldurretan murgiltzen ari da, pixkanaka-pixkanaka.

—Lasai egon, normala da, baina ez izan horren beldurrik.

—Zu ez zara heriotzaren beldur? —galdetu nion gizonari, urduri.

—Ez nau izutzen, ez naiz azken arnasaren beldur bizi. Bizitzak eta adinak irakatsi didate momentu txikiena ere bizi behar dela, ingurukoak maitatuz eta arriskuari diogun beldurra mugatuz. Nire emaztea den Kontxik, bizitza eman zuen nigatik. Orain nire txanda da, eta eguna iristen zaionean, pozik izango naiz; badakit momentu gogorra izan arren lasai egongo naizela! Egin beharreko guztia elkarrekin egin dugu, oraindik elkar maite dugu, irratian gure abestia jartzen dutenean gogoz abesten dugu. Eta gainera, egunero-egunero, goizean goiz, zeinen ederra den esaten diot, bere ile zuria orrazten duen bitartean.

—Zeinen polita!

—Polita bada ere, gogorrak izan dira aurreko urteak. 16 urte pasa nituen ziega ilunetan. Espetxeratu baino 4 urte lehenago ezagutu genuen elkar eta urtebete lehenago ezkondu, 23 urte bete berriak genituela. Hilean bitan etortzen zen bisitan, autoa hartu eta 3 ordu luzez gidatuz, 40 minutuz elkar ikusteko. Amets gaiztoen kaiola zela zioen Kontxik, baina bere irria kristal lodi horiek ere ez zuten gelditzen.

—Nabaria da elkar maite duzuela.

—Maitasuna ez da hilko. Kafetxo bat nahi? —galdetu zidan, gertutasuna adieraziz.

—Horretara etorri naiz. Nola duzu izena?

—Mattin, Mattin Etxague.

—Ni, Nora. Pozten naiz zu ezagutzeaz.

Kafe bero hura edan bitartean kontu-kontari aritu ginen eta Kontxiren egoeraren berri ere eman zidan. Lastima handia sentitu nuen.

Ikaragarria zen bere emazteari buruz hitz egitean begien dirdiren indarra, nabaria zen maiteminduta zegoela. Malko bakar bat ere ez zuen isuri eta nik, aldiz, ezin izan nion negarrari eutsi.

Luzaz hitz egin eta gero, nire telefonoa eskaini nion gizonari, zerbait behar izanez gero nirekin harremanetan jar zedin.

Mattinek tapadun sakeleko zahar hura patrikatik atera eta begiak teklatura pega-pega eginda zituela gorde zuen nire zenbakia. Birritan esan behar izan nizkion zenbaki guztiak, eta amona gogorarazi zidan momentu hartan, bera ere ez baitzen teknologiaren lagun.

Mugikorrak ixtean sortutako soinuarekin batera urrutiratu ginen elkarrengandik.

Orduak igaro genituen bata besteari bizipenak kontatzen eta esandako guztiak zer pentsatua eman zidan. Hitz gutxiko gizona zirudien lehen begiradan, baina asko zuen esateko gizonak, urrezko hitzak ziruditen bereak.

Nork esango zidan 20 urte bete berriak nituela 80 urteko gizon baten lagun egingo nintzela?

Ordulariari begiratu nion, dagoeneko gaueko ordu txikiak ziren. Amari deitu eta ni kanpoan nengoen bitartean amonaren paperak sinatu eta senideei deiak egiten aritu zela esan zidan.

Ospitaleko logelara abiatu nintzen, amari lagundu eta etxera ahalik eta azkarren itzultzeko asmoz.

Azkenean iritsi zen bertatik alde egiteko garaia, autora sartu ginen, ilunetan. Etxera bidea inoiz baino luzeagoa egin zitzaigun, musikarik ez, hitzik ez, irribarrerik ez, ezta amonarik ere.

Ama isilik egoten ez dakien horietakoa da, baina etxera bideko 20 minutu luze haietan arnas hotsa zen entzuten zitzaion soinu bakarra. Askok harritu ninduen.

Etxera iristean, zuzen-zuzenean logelara joan nintzen, aitari kasurik egin gabe.

Ohean etzan nintzen, begiak itxi ezinik. Burutik mila oroitzapen pasatzen zitzaizkidan, eta banekien une haiek ez nituela berriz biziko.

Halako batean, oroitzapen zoragarri haiek albo batean utzi eta burua, automatikoki, egoerari buruzko hausnarketa sendoak egiten hasi zitzaidan.

Txikitan, amonaren baserrian pasatzen genituen asteburu guztiak. Azken urteetan, berriz, zorte pixka batekin hilean bitan joaten nintzen baserrira, garrantzitsuagoa iruditzen baitzitzaidan larunbat arratsaldeak taberna zuloan igarotzea. Orain, pentsatzen jarrita, gehiagotan joan beharko nintzatekeen berari bisita egitera, baina dagoeneko beranduegi zen hori aldatzeko.

Zahartzea ez da soilik ilea zuritzea, zahartzea zure bizitzako azken eguna gerturatzen dagoela onartzea ere bada, eta esango nuke, norberak onartzea baino zailagoa dela ingurukoek onartzea. Amona

makal samar zegoen azken asteetan, berak bazekien zer zetorkion eta guk, aldiz, pasako zitzaion bolada bat zela uste genuen. Zeinen tuntunak!

Emakume gogorra zen amona, isil-isilik sufritu zuen, azken unera arte inori gaizki zegoela adierazi gabe. Momentu oro ingurukoek beharrak asetzen saiatzen zen, besteen egoerari bere buruari baino garrantzia gehiago emanez. Nik horren aurrean ez nuen ezer egiten, zerbait eskatu zain egoten nintzen berari zerbait ordainetan emateko, baina badakit eskatu gabe lagundu beharko niokeela, eta horren pisuarekin bizitzen ikasi beharko dut, jada ezin dut hori aldatu eta.

Ospitalera joan baino lehenago gure etxean egin zituen pare bat hilabete. Gogoan dut oraindik etorri zen egun hura. Ezpainak gorri-gorri pintatu zituen. Etxera etortzeko egun berezia zela zioen, eta anaiari eta niri muxu ematean guztiz zikindu gintuen karmin koloreko ezpainetakoarekin. Horren aurrean oihu egin nion, makilatu berri nengoen eta amorrarazi ninduen, gainera... berandu nindoan kalera. Izugarri haserretu nintzen eta inoiz ez nion barkamenik eskatu eta, orain, alferrik bada ere, damu naiz.

Amona lxabelek inoiz ez ninduen jo, ezta oihu egin ere; are gehiago, inoiz ez zidan errespetua galdu. Noizean behin, sermoitxoren bat edo beste bota zidala dut gogoan, baina bere ahotsak ez zuen inongo beldurrik ematen. Ahots goxoa zuen. Gaztetan, kantuan aritzen zen herriz herri, horrela ezagutu omen zuen nire aitona. Baina, egia esan, ez dakit ezer, ni jaio baino urte bete lehenago hil baitzen aitona, eta amonak gutxitan aipatzen baitzuen senarra.

Amak behin esan zidan aitona amona jotzen zuela eta jasandako guztia ezkutuan mantendu behar izan zuela erasoak ez areagotzeko. Gogoan dut, oraindik, ama hori esaten entzutean tripetan nabaritutako korapiloa.

Ospitalean, Mattin bere andre Kontxiri buruz hitz egiten entzutean,

IPUINA

hainbatetan gogoratu nintzen nire amonaren eta aitonaren arteko harremanaz. Amonak beste pertsona bat behar zuen alboan, bera zaindu, maitatu eta berarekin bizitzaz gozatuko zuena. Guk tuperra janariz beteta hartu eta alde egiten genion, eskerrik asko sinple batekin eskertuz.

Amona maitatu arren, ez nion inoiz adierazi benetan zenbat maite nuen, eta zama horrekin bizi beharko naiz nire bizitza guztian. Berak, milaka alditan gogorarazten zidan maite ninduela, eta faltan botako dut berriz ere bere ahots goxoarekin hori entzutea, baita bere bitamina-muxuak ere, eta nola ez txikitako larunbatetako menu zoragarri haiek!

Berriz ere berarekin une bat bizitzeko aukera bakarra ametsetan zenez, nire burua behartu nuen lokartzera. Errealitatean ez bazen ere ametsen bidez, egindako guztiaz barkamena eskatzeko beharra ikusi nuen.

Goxo egin nuen lo gau hartan.



Miriam Moñux

Bosgarren taldea
2. saria

IPUINA
Nork entzungo zaituen

NORK ENTZUNGO ZAITUEN

“Jesar zaitez. Jesar zaitez mesedez, faltan botatzen zaitut eta. Faltan botatzen ditut zure irria, sortzen zenuen soinua eta sentiarazten zenidan zirrara. Soinu hori entzun nahi dut berriz, bizirik sentitu nahi zaitut berriz.”

Duela urte asko gertatu zen lehen aldiz. Larunbat goiza zen eta Luz andreak dei bat jaso zuen. Bi etxe haratago bizi zen bizilagun bat zen fabore bat eskatuz eta Luz andreak luze pentsatu gabe eman zion baietza. Telefonoa eskegi eta lanari ekin zion.

Abendu hasiera zen eta, beraz, udan bakarrik erabiltzen zuen beheko pisuko egongela ez zuen inork gehiago beharko. Matilderentzat prestatuko zuen. Egongela hark ez zeukan aparteko dekoraziorik. Gelaren erdian egurrezko mahai handi bat zegoen, lau aulkirekin. Mahaiaren parean, bi pertsonendako moduko sofa bat eta sofa horren aurrean, beste mahai txikiago bat. Mahai handia izkina batera arrastaka eramatea lortu zuen eta aulkietako batekin ordezkatu zuen, gelaren erdi-erdian jarritz aulkia. Sofa eta mahai txikia, berriz, zeuden tokian utzi zituen. Udako egongelan ez zegoen ez berogailurik ezta surik ere eta, beraz, Luz andreak berogailu elektriko bat ere erosi zuen, aulkiaren ondoan jarri ahal izateko. Dena prest zegoen, Matilde besterik ez zen falta. Luz andrea aspaldi baino hunkituago zegoen, baina Matilde berriz lur jota agertu zen.

Azkenengo hilabeteak nahiko zailak izan ziren Matilderen etxean. Duela aste ugari hasi zen bere ahizpekin etengabeko borrokan.

Hauek Matilderen “zarataz” kexatzen ziren astebururo eta bukaezinak ziren eztabaida oraindik zaratatsuagoetara bideratzen zituen horrek. Bazirudien aita haiekin ados zegoela, ez baitzuen haien akusazioen kontra ezer esaten eta, azkenean, amak erabaki drastiko bat hartu zuen, behingoz, etxe hartan bakea egon zedin. Izan liteke Matilde etxe hartan entzuna ez sentitzea, baina bazegoen beste norbait bera entzuteko irrikan zegoena.

Ez zen Luz andrearen etxera joaten zen lehen aldia, baina lehenago bere ahizpa txikiekin batera izan zen han beti. Arratsalde pare bat pasata zituzten hirurek Luz andrearekin batera, gurasoak lanean zeuden bitartean. Jolasean ibiltzen ziren, gurasoen etxean baino telebista gehiago ikusteko baimena zeukaten eta behin etxeko lanak ere egiten lagundu zien Luz andreak. Gustuko zuten han egotea, baina lehen aldia zen Matilde bakarrik zihoala eta lehen aldia zen bere txeloa gainean zeramala.

Oraindik malkotan zegoela, Luz andreak eskutik hartu eta mimoz prestatutako egongelara eraman zuen. Pixka bat animatu zen gela hura ikustean, posibilitatez beteriko espazio zabal batekin topo egin baitzuen. Eskutan zeraman atrila muntatu, txeloa eta partiturak atera eta aulkian jarri zen lanerako prest. Luz andrea, berriz, pareko sofán jarri zen eskutan kafe beroa eta hanken gainean manta potolo bat zeuzkala, goizean erositako berogailu txikiak pertsona bakarra berotzeko moduko indarra baitzeukan. Matilde txeloa jotzen hasi eta hor hasi zen magia.

Ezkerreko eskuko hatzek zehaztasun eta bizitasunez artikulatzen zuten nota bakoitza eta eskuineko eskuarekin maisutasunez maneiitzen zuen arkuaz lau soka haietako bakoitza sentsibilitate eta goxotasun bereziarekin igurtztean igortzen zuen soinu goxoak etxeko izkina eta zirrikitu guztietan egiten zuen oihartzun. Bat-batean, etxe osoa argiz eta bizitzaz bete zen. Nork esango zukeen hamaika urteko neskatila batek halakorik egin zezakeenik.

Momentu hartan, inoiz aurretik erakutsi gabeko espresioa antzeman zen Luz andrearen aurpegian. Matilderen parean jarrita, mugimendu txiki bat ere egin gabe, kafea eskuan eta begirada neskatzarengan finko jarrita zeukala malkoak masailetatik etengabeko jarioan erortzen hasi zitzaizkion. Horrela jarraitu zuen bi orduren ostean txeloak azken soinua igorri zuen arte.

Bazirudien Matilderi naturalki ateratzen zitzaiola. Txeloak bere jolas gustukoena zirudien, eta jolas hori edozein motatako emozioak sorrarazteko gai zen. Tonalitate maiorrean idatzitako melodia alai eta abeslari batetik tonu malenkoniatsu eta artikulazio luzez idatzitako beste batera pasa zitekeen, eta intonatzen zuen melodia bakoitzak zeukan esanahia, norabidea eta helburua. Akats bat edo beste egiten bazuen, atzera bota eta berriz errepikatzen zuen pasarte berbera, emaitzarekin pozik gelditzen zen arte. Ez zion bere buruari akatsen errurik botatzen, akatsek hobetzeko aukera ematen baitzioten eta hori, benetan, ederra zen.

Handik aurrera, Matilde astebururo joaten hasi zen Luz andrearen etxera praktikatzera, bi ordu larunbatetan eta beste bi ordu igandetan, eta ondorengo urteak hori bera egiten eman zituen. Luz andreak beti izan zuen gustuko Matilde eta bere ahizpak, noizbehinka, etxean izatea, baina hirurak hazten joan ziren heinean etxeko giroa lasaitzen joan zen, eta Luz andreari etxeko bizitasuna mantentzen laguntzen zioten arrazoiak agortzen hasi zitzaizkion. Baina Matilderen aurrean esertzean beste mundu batean zegoela sentitzen zuen. Ez zitzaizkion axola gorputz osoan nabari zuen hotza edo denbora luzez lokartzen zitzaizkion hankak. Sortzen zuen soinu hura entzutea, Matilde horrela ikustea besterik ez zuen nahi. Zerbait berezia antzematen baitzuen harengan. Eta beheko pisuko egongelaren erdian mimoz kokatutako aulki hark bezala, Luz andreak aste osoa ematen zuen Matilde iristeko zain.

Baina urteak pasa ahala, aste-bukaeretan han praktikatzeko ohiturarekin jarraitzen zuen arren, beste ohitura batzuk atzean uzten

hasi zen Matilde.

Luz andreari berarekin egongelan egotea debekatu zion lehenengo aldiaren ostean. Hiru egun pasa zituen emakumeak negarrez, triste eta gris. Hamasei urte zituen Matildek. Lotsa ematen ziola zioen eta kontzentrazioa ezin zuela mantendu norbait uneoro begira bazuen. Garai hartan presio handia sufritzen hasia zen. Txeloarekin aurrera jarraitu nahi izanez gero, gogorrago lan egin beharrean ikusten zuen bere burua eta berak zioen bezala ezin zuen edozeren erruz arreta galdu.

Luz andreari, Matilderen erabakia errespetatu nahi izan bazuen ere, asko kostatzen zitzaion Matilde entzuteko esperientziari uko egitea. Behin baino gehiagotan eskatu zion egongelan berriz sartzeko baimena eta erantzuna ezezkoa zen beti. Noizbehinka atearen atzetik entzuten saiatu zen, baina ez zen gauza bera, magiaren zati handi bat galduta zegoen eta soinu hura ez zen goiko pisutik berdin sentitzen. Jada ez zegoen argirik, ez zegoen hitzez deskribatu ezin litekeen emoziorik eta ez zegoen gela osoa goxotasun eta bizitasunez betetzen zuen soinuaren arrastorik. Zein da ba musikaren eragina inork entzuten ez badu?

Behin saiatu zen gaztearekin hitz egiten, gertatzen zitzaiona kontatu ziezaion, baina beraien arteko harremana ez zen inoiz era horretakoa izan. Matilderekin hitz egiteko saiakera hura, astero bizirik zegoela gogorarazten zion sentsazioa berreskuratzeko azken esperantzaren emaitza baino ez zen izan, baina ez zuen ezer lortu.

Denbora pasa ahala Matilde unibertsitatean ikasten hasi zen eta beste hiri batera joan zen bizitzera. Horregatik utzi zion Luz andrearen etxera horren sarritan praktikatzera joateari. Batzuetan bi aste pasatzen zituen han agertu gabe, beste batzuetan bi hilabete. Aldi haietako bat izan zen etxe hark Matilderen txeloren soinua entzungo zuen azkena.

Luz andrea handik urte batzuetara hil zen. Ordurako Matilde urrun zegoen jada, eta denbora asko zen bere jaioterrira bueltatzen ez zela. Amak deitu zion albiste emateko, baina Matildek izen hori aspaldian entzuten zuen lehen aldia zen eta albisteak ez zizkion emozio gehiegi sortu. Hala ere, etxera bueltatzeko ordua zela sentitu zuen.

Luz andreak ez zeukan zuzeneko ahaiderik eta Matilderen amak hartu zuen haren etxera joan eta objektu pertsonalak jasotzeko erantzukizuna. Inork nahi ez zituen altzari guztiak etxe-agentziaren eskutan geldituko ziren. Beste gauza gehienak bota, batzuk behar zituztenei eman eta gutxi batzuk gordetzeko intentzioarekin, Matilderi eskatu zion zeregin harekin lagundu ziezaion. Arratsalde oso bat pasatu zuten biek batera Luz andrearen etxean, eta bien harridurarako, nahiz eta biak han birritan egonak izan, etxe hartan jasotzeko gauza askorik ez zegoela konturatu ziren.

Ezagutzen zutenetik bakarrik bizi izan zen beti eta ez zen etxetik gehiegi ateratzen, erosketak egiteko baino ez. Oso jatorra zen bizilagun guztiekin eta herriko askok ezagutzen zuten baina, hala ere, ez zuen bere buruari buruz hitz egiten eta inork ez zekien gauza askorik bere bizitzari buruz. Beti zegoen laguntzeko prest: bizilagunen haurrak zaindu, herriko zahar eta gaixoendako janaria prestatu edo beharra zutenendako arropak josten zituen sarri.

Etxe hartan ez zegoen argazkirik, ezta dekorazio askorik ere, korridorean esekita zeuden pare bat koadro kenduta. Sukaldean, bertan aurkitzea espero daitekeen guztia aurkitu zuten eta baita Luz andreak josteko erabiltzen zuen guztiaz betetako armairutxo bat ere. Egongelan telebista bat, sofa handi bat eta liburuz betetako apalategi bat besterik ez zegoen eta, azkenik, bere gelan, barruan oso arropa gutxi zeukan armairu bat, ohe bat eta horren ondoan, mesanotxe bat. Matildek mesanotxearen tiradera zabaldu eta egunkari-zatiz beteta zegoela ikusi zuen. Denetan irakurri zezakeen bere izena. Luz andreak urteetan zehar aurkitu ahal izan zituen Matilderen kontzertuei buruz idatzitako albiste, artikulua eta kritika guztiak zituen mesanotxe

IPUINA

hartan gordeta. Eta orduan konturatu zen Matilde ez zuela inoiz Luz andrea bere kontzertu batera gonbidatu.

Ustez dena jaso ostean, ama etxerantz joan zen eta Matilde pixka bat gehiago gelditu zen dena aztertzeko asmotan, ezer ahaztu ez zutela ziurtatzeko. Orduan gogoratu zuen beheko pisuko egongela. Eskailerak jaitsi, atea zabaldu eta aspaldi aireztatu gabeko gela ilun batekin egin zuen topo. Atearen markoaren ezkerreko aldean zegoen etengailua sakatu zuen argia pizteko eta gela osoa gainbegiratu zuen. Han zeuden duela urteak izkina batean utzitako mahai handia, sofa, haren pareko mahai txikia eta egongelaren erdi-erdian, hautsez estalitako egurrezko aulkia.



Ainhoa Pardina

Bosgarren taldea
3. saria

IPUINA
Ispiluaren isla

ISPILUAREN ISLA

Egunero bezala, kalera irten naiz eta, bat-batean, kotxeko argiek argitu naute. Ni. 90 kilo pisatzen dituen 80 urteko emakume bat. Hori da kotxeko gidariak ikusten duena, mugi nadin garrasi eginez haserretzen den bitartean. Hori da bere begiek transmititzen diotena. Baina hori al naiz ni? Tripa eta zimurrak? Hori bezain sinplea? Ile zuriak gidariaren argudio ote?

Kotxeko fokuen argitasuna eguzkiarena baino handiagoa eta mingarriagoa da, eta botere misteriotso bat dauka. Boterea. Kotxea ispilu bihurtzeko boterea. Alabaina, ispilu handi hartan ez dut nire burua inon aurkitzen. Non dago nire gorputzaren isla? Non nago ni? Burua galdu ote dut? Ez ote dut nire burua ezagutzen? Ispiluaren islak zergatik islatzen du energiaz beterik dagoen emakume eder bat, super heroi maitagarri bat, nire gorputz zahar hau islatu beharrean? Ispiluko islak ez du nire isla islatzen, eta horrek galdutako isla batean banengo bezala sentiarazten nau. Galduta. Bakarrik.

Negarguraz eta bakartasun sentsazio gogorrarekin ispilu argitsuari begiratu diot adi-adi, bertako emakumea ezagutzeko gogo misteriotso batek eraginda. Nor ote da?

Emakumeak irribarre handi batekin begia kliskatu dit, berari jarrai diezaiodan eskatuz. Zer arraio gertatzen ote zait gaur? Zergatik tratatzen nau horren ondo emakume ezezagun bezain misteriotso honek?

Nahi gabe, gorputzak nire buruaren esanik jarraitu gabe, arima

gorputzetik atera balitzait bezala, emakume maitagarri horren esanak bete eta jarraitu egin diot, utopia bakarrik izan daitekeen herrixka galdu batean agertu arte. Nola iritsi ote gara hona?

Herrixka galdu hori zelai zabal bat da, funtsean, hiru etxe dituen. Zelai zabal bat, belarra, haizearen goxotasun leunak kulunkatzen dituen lore politak, gerizpe goxoa ematen duten zuhaitz handi gutxi batzuk eta hiru etxe, hutsik. Dena dago lasai-lasai, ez dago izaki bizidunik, emakume misteriotso bezain maitagarria eta ni besterik ez. Isiltasuna da nagusi. Isiltasuna eta bakea. Lasaitasuna.

Emakumeak bere ahoan irribarre polit bat duela jarraitzen du, eta etxe huts baina eroso eta atsegin batean sartu da. Jarraitu egin diot, berriz ere nahi gabe, ezin baitut nire gorputza kontrolatu. Nolabait, badirudi ez naizela nire gorputzaren jabe, nire arimak lapurtu dit gorputza momentu honetan, berak dioena bakarrik egin dezaket. Nire aurrean dagoen emakumeak sorgindu nau eta txotxongilo bat dirudit. Txotxongilo bat... bai, agian bai, baina ez nago ez haserre, ez arduratuta, ez lotsatuta, ezta antzeko ezer ere, pozik baizik. Pozik eta lasai. Lasai eta bakean. Bakea, hori da hitza, horrela daukat nire barnea.

Esan bezala, etxe huts batean sartu da, sartu naiz, sartu gara. Etxe misteriotso horrek nire bizitzara narama. Nire bizitzaren zati batera. Nire lagunaren irudiak daude bertan, holograma batzuk balira bezala. Batera bizitako une latz zein goxoak gogorarazi dizkirate, baita momentu gogorretan lagundu diedala ikusarazi ere. Lagundu. Zer ote, ordea, laguntzea? Zer laguntasuna? Momentu onak elkarbanatzea? Momentu latzetan hor zaudela adieraztea? Zer da, baina, "hor" egotea? Zer egin dut nik pertsona hauei lagundu diedala esan ahal izateko? Ni ote naiz eurek dioten lagun hori? Pentsatzen jarrita, ni ezin naiz izan, ni 80 urte dituen ile zuridun emakume triste eta bakarti bat baino ez naiz... Irudietan azaltzen den emakumeak fisikoki nire antza dauka, bai, gaztetan neukan itxura dauka, baina barrura begiratuta ez dut nire burua ikusten. Ez naiz identifikatuta sentitzen.

Emakume misteriotsoaren antz handiagoa dauka... Misterioa, berriz ere misterioa.

Etxe horretan dauden nire lagunaren irudiek opari bat egin nahi izan didate. Kapa bat da. Kapa ilun baina, aldi berean, koloretsua. Ez dakit zertarako balio duen kapa arraro horrek, baina jantzi egin dut, eurek hori nahi dutela dakidalako. Konturatu gabe, irribarre artean etxea desagertu egin da. Herri xarmagarri horretan jarraitzen dut, baina orain etxe bat gutxiago dago.

Berriz agertu da emakume misteriotsoa eta beste etxe batean sartu da, berriz ere jarrai diezaiodan eskatuz. Ez dut ezer ulertzen, baina sentsazio ona daukat, gustura nago, beraz, kasu egingo diot.

Etxe hau lehengoaren berdina da baina ez daude nire lagunak, nire familia baizik. Nire aitona-amona, guraso, anai-arreba, bikote, izeba-osaba eta lehengusuek gain, nire seme-alabak daude, baina, azken hauek, hainbat aldiz errepikatuta. Hauen irudiek ere hologramak dirudite. Hogeina irudi daude: jaio ziren momentukoak, haur txikiak zirenekoak, koskortzen zihoazenekoak, nerabazarokoak, gaztarokoak, nagusiagokoak, nire bilobak jaio zirenekoak, etab. Negar malko batek nire aurpegia zeharkatzen duen bitartean ezin ditut emozioak kontrolatu. Maitasuna dago leku guztietan. Maitasuna. Hain hitz eder eta zaila. Nik izugarri maite ditut gela horretan dauden pertsona guzti guztiak, hori garbi daukat. Eurek ere ni horrenbeste maite al naute? Posible ote ni bezalako atso zahar bat horrenbeste maitatzea? Maitasuna erreala ote da? Zer da erreala, eta zer irudimena? Burua galtzen nagoela uste dut...

Pentsamenduok nire buruan bueltaka diharduten bitartean, nire seme-alaben gaurko irudiari begiratu eta hauek beste opari bat eman didate. Oraingoan hauts batzuk dira. Hautsak. Hortik gatoz eta hor amaituko dugu. Hautsok, ordea, ez omen dira edozein hauts, magikoak omen dira. Magikoa, berriz ere magikoa. Hegan egiteko balio omen dute. Ez dut ezer ulertzen.

Etxe hori ere bat-batean desagertu egin da. Orain herrian etxe bakarra dago eta, jada ezagun egiten zaidan emakumea inon ageri ez den arren, etxe hartan sartzea erabaki dut. Oraingoan nire buruaren jabe naizelarik, bakarrik.

Etxean sartu bezain laster hartu dudak sorpresa sinestezina da. Hemen dagoena nire bizitza osoaren laburpena da: aurreko etxeetan zeuden nire lagunak eta familia agertzeaz gain, nik egin ditudan lanak agertzen dira nire lankideekin islatuta, baita inongo arrazoi berezirik gabe bizitzan zehar lagundu didan ezezagun mordoxka bat ere. Berriz ere sentsazio bera gailendu zait: ez dut nire burua irudiotan identifikatzen, nahiz eta, oraingoan, beste irudietan baino gertukoago sumatzen naizen. Emakume misteriosua ere bertan dago, eta nigana hurbildu da guztien izenean zerbait eman nahi balit bezala, baina eskuak hutsik dauzka. Eskuetako bat bihotzaren parean ipini dit, bestea, berriz, buruan. Ez dut ulertzen zertan dabilen baina geroz eta indartsuagoa sentitzen naiz.

Orain arte emakume hori isilik egon den arren, bere aho irribarretsua ireki eta hitz batzuk esan dizkit: “Super-heroia maitea, kapa eta hauts magikoak eman dizkizute super-heroia bat zinela ikus zenezan. Nik orain indarra emango dizut, baina zuk egin behar duzu gainontzekoa”.

Super-heroia ni? Tira, agian ez naiz ni burua galtzen hasi dena, nire parean daukadan emakume misteriosu hori baizik. Super-heroia... ez al daki super-heroiak ez direla existitzen? Komikietako fikziozko pertsonaia batzuk besterik ez dira... ez?

Gainera, zer esan nahi du “zuk egin behar duzu gainontzekoa” horrek? Zer egin behar dut? eta zergatik?

Bat-batean, hitz horiek sorgindu egin banindute bezala, airean flotatzen hasi naiz, hegan hasi naiz! Nire gorputza lurretik altxa da eta Peter Pan-en antza hartu du! Botere magikoren bat al daukat? Magia, berriz ere magia.

Berriz ere lurrera jaitsi eta errealitatea ikustea lortu dut azkenean. Ez daukat botere magikorik, ados, hori ez da existitzen, baina benetako super-heroia bat naiz. Ulertu dut. Benetako super-heroiek euren burua maite dute, baita ingurukoak ere. Benetako super-heroiek euren burua zaintzen dute, baita ingurukoak ere. Benetako super-heroiek ahal duten guztian laguntzen die gainerakoei, norberari zein gainontzekoei ahalik eta min gutxien eginda.

Kostatu zait baina super-heroia bat naizela konturatu naiz. Indarra sentitzen dut, edozertarako gai naizela sinesten dut, nire burua maitatzen ikasi dut eta nire burua gehiago ezagutu dut. Magia baino magikoagoa izan da guztia.

Emakume misteriosuarengana hurbildu nahi nuen eskerrak emateko, baina ez dago inon. Herria desagertu egin da eta ispilu argitsua bueltatu da. Bertan lehengo emakumea dago, baina ez naiz gai izan eskerrak emateko; izan ere, oraingoan ezagutu egin dut emakume hori. Neu naiz, neure isla da, neu naiz ispiluaren isla eta halaxe izan da hasieratik. Neu naiz kotxeko faro handiek argitzen duten pertsona. Ez naiz 80 urte dituen emakume gizen bat. Ez. Emakume indartsu bat naiz, momentu latzak bizi izan dituen arren beti aurrera egin duena, inguruko guztiei lagunduz. Hori naiz ni. Hori da fokuek argitzen dutena.



Ainhua Pardina

Bosgarren taldea
1. saria

POESIA

Denboraren hausnarketak:

Pertsoberak

DENBORAREN HAUSNARKETAK:

PERTSOBERAK

Atzo	gaur	(eta)	bihar,
------	------	-------	--------

denboraren joan etorria.

Hausnarketa asko,
jende asko,
bizipen asko...
asko
asko
asko...
Damuak, minak,
Kontraesanak,
lotzen gaituzten
(h)ari ikusezinak.
Harremana hautsi nahi
baina ezinak.

Geroa ahaztu arren,
iragana (da) gero
eta geroa
memo.

Aldaketarik ezinak
sortzen du nire mina.
Nahikoa egin duzu
nire bizitzari emanaz su.
Sortu duzu nahikoa izu:
soberan zaude zu!

KONTRAESANAREN NAZIOARTEKO EGUNAK

Burua bueltaka dabil atzo, etzi eta gaur berdin.

Gaizki dagoela uste dut

eta

ez nuen ezer egin.

Burua bueltaka berriz.

Ez nago batere ados
eta

ez nuen barbarik egin.

EZ DAKIT

Norbaitek esan zuen:

“ez dakit
ez dakitelako
ez duten irakurtzen
edo
ez dakiten
ez dutelako irakurtzen”.

Bada, batzuetan, nik
ez dakit
ezer ulertzen ez dutelako
gorrotoan bizi diren
edo gorrotoan bizi direlako
ez duten ezer ulertzen.
Ez dakit, baina

orain arte behintzat ez
dute ezer ulertu
(nahi?)
(izan?)

HARI, BAINA EZ ERI

Elkarri lotuta gaituzten
Elkargurutzatzen diren
hari asko dago edonon.
Zeruraino iristen,
lurreraino heltzen direnak.
Kanporatzen zaizkigunak,
barneratzen zaizkigunak.
Sarri urratzen gaituztenak.

Ez-zuzenak eta
zeharo okerrak direnak.
Ezker-eskuin,
goi-behe.
Denak goranzkoak.
Denak beheranzkoak.

Egon badaude
Hariak, sokak edo kordelak,
Korapilatutako eztabaidak.

Besterik gabe,
behar da
ikusi nahia desiratu,
artalderik gabeko
artzainen gisara.
Behar dira ezagutu,
ulertu.
Behar izanez gero,
eragin.

ZU

Nik ere badut zu bat,
edo banuen.

Nik ere idatzi izan diot zu bati.

Ez da beti zu bera izan.

Ez da beti su bera izan.

Baduzu surik?

Ez, ez dut erretzen,
nahikoa erre naute ni jada.

Orain hemen nago,

ikatz artean

zuri idazten.

Edo zuri,

edo zuri...

Su izan zarete guztiak.

Maiz gogoratzen naiz zurekin.

Gaur idatzi egin dizut,
zuren batek irakurriko nauelakoan.



Aranzadi ikastolako
5. mailako ikasleak

Lehenengo taldea
Saria

BERTSOA
Saltxitxalandia,
saltxitxa txakurren planeta

SALTxitxALANDIA, SALTxitXA TXAKURREN PLANETA

(Doinua: "Ikusi nuenean")

1)	4)
Biztanle denak dira	Saltxitxa horia da
saltxitxa txakurrak	dugun gaitz larria
oso luzeak dira	puntu txuriak eta
beraien muturrak.	azala horia.
2)	5)
Zaunka egiten dugu	"Trhow and go" du izena
bertako hizkuntza.	bertako kirolak
Gu ulertzeko behar	txakurrek dirudite
al duzu laguntza?	azkar doazen bolak.
3)	6)
Urrezko saltxitxa da	Denok joan gaitezen
hemengo txanpona	ondo pasatzera
Saltxitxalandiako	oporretan bagoaz
denon zoriona.	Saltxitxa D'or-era!



**Aranzadi ikastolako
5. mailako ikasleak**

**Lehenengo taldea
Soria**

BERTSOA
Txakurra nahi dut

TXAKURRA NAHI DUT!!

(Doinua: "Ikusi nuenean")

1)

Kaixo aita ta ama
txakurra nahi nuke
ondo portatuko naiz
txakurraren truke.

2)

Gazteegia zara
txakurra zaintzeko
koskortu beharko duzu
zaintzeko hobeto.

3)

Politak dira eta
dibertigarriak
gure lagunak dira
ta harrigarriak.

4)

Kaka egiten dute
edozein tokitan.
Zuk aterako duzu
goizeko zazpitan?

5)

Kaka garbituko dut
egun guztietan
gainera aterako dut
nik beti goizetan.

6)

Nota onak atera
ta eukiko duzu,
oso ongi txikito
konbentzitu nauzu.

A watercolor illustration of a landscape. In the foreground, a river flows from the left towards the right, its surface reflecting the sky and surrounding foliage. The river is bordered by a dark, possibly stone or concrete, bank on the right. The background is filled with lush green trees and foliage, with some areas of yellow and orange suggesting autumn. The overall style is soft and painterly, with visible brushstrokes and a gentle color palette.

**San Martin Agirre herri eskolako
6. mailako ikasleak**

**Lehenengo taldea
Saria**

BERTSOA
Agur Putin

AGUR, PUTIN

1)

Munduan zehar orain
bada hainbat gerra
Putin, zurearekin
daukagu ederra..

2)

Gerra bat amaitzean
hasten da bestea
horrela izatea
benetan tristea.

3)

Batzuk pentsatzen dute
gainetik daudela
esan beharko zaie
ez dela horrela.

4)

Ez dago zertan beti
erabili arma
baina zu egon lasai
bueltan duzu karma.

5)

Putin, ez erabili
zuk hainbeste misil
lortzen duzun bakarra
da jende asko hil.

6)

Gerrak iraun behar zuen
bakarrik astea
ta oraindik ez daukagu
nahi dugun bakea.

A watercolor illustration of a landscape. In the foreground, a river flows from the left towards the right, its surface reflecting the sky and surrounding greenery. The banks are covered with dense, vibrant green foliage and trees. In the background, a range of mountains is visible, with the highest peaks shrouded in a soft, hazy blue mist. The overall style is soft and painterly, with visible brushstrokes and a gentle color palette of greens, blues, and earthy tones.

**Unai Garmendia eta
Xabier Eguren**

**Hirugarren taldea
1. saria**

BERTSOA
Bertso berriak Marokori jarriak

BERTSO BERRIAK MAROKORI JARRIAK

1)

Aste Santua aprobetxatzen
eskursiñotxo bat giñan prestatzen,
Ubera eta Unaien plana,
Marruekosen paskua aste dana,
hori entzutian,
Xabi be animau zan golpian,
hola hasi zan abenturia.

2)

Burdeosetik ta Fes aldera
hori zan buruan geunkan aukera.
Erretreten erreforma zala,
plana ez zan bete guk nahi bezala,
buelua kantzela,
ta tonto mosu onakin gerau,
hasieria besteik ez da hau.

3)

Agadir-era ailegau giñan
egun bateko atrasua aldian.
Aeropuertuan kotxia alkilau,
kamioi bat bolkauta bertan tokau.
Bozinazuak,
ta rotondetan zeda pasuak
pasau ditzugu arnas-estuak.

4)

Kalietatik pasiatzian
bizkor lortu dabe gu engañatzia.
Zoco-an sartu ta derrepente
kontaktu bisuala hor presente.
Kriston aukera,
tunika bana burutik behera
marrubi batzuk eta etxera.

BERTSOA

5)

Katu ustelak, kaiuen kaka
Essaouirak usain hori badauka.
Hostala ezin iñundik bilau
kosto eskaxena giñun topau.
Ze arrarua,
ez zan biajeko azken timua
majua Uberan pelukerua.

6)

Hortik aurrera, beti antzera
kale saltzaile guztien jarrera.
Marrakech, Fes ta Rabat erdixan
“TONTOK” kartela guk bekokixan.
Umiltasuna,
hori zan gure lasaitxasuna:
Gora turista elkartasuna!

7)

Fez-etik irten, Chauen bidian
sorpresa edarra konturatzian.
Gasolina reserban dagola,
¡Cómo reserban, eh no me jodas!
Hau ze desastre,
intentziñoiz laga dabe gazte,
repostatzera heltzeko beste.

8)

Bi berba euskeraz entzun kalia
Ta gu hortxe goiaz lerro planian.
Txirri, Mirri eta Txiribiton,
Mondragón en cada casa un ladrón.
Jente majua,
honekin be ein dou negoziuxa
Ramuntxon kartan premixua.





Paule Arrizabalaga

Lehenengo taldea
Saria

KOMIKIA

Emma eta abenturaren deia

EMMA ETA ABENTURAREN
DIA





**Saioa Gallastegi, Irati Garmendia
eta Nahia San Vicente**

Lehenengo taldea

Saria

KOMIKIA

Jesus eta bere prezioak



JESUS ETA
BERE PREZIOAK

Koldo Eleizalde - Lehiaketak 2023 -






Ainhoa Herran

Lehenengo taldea
Saria

KOMIKIA
Errege bilakatu zen xagua








A watercolor illustration of a landscape. In the foreground, there's a river or stream with a wooden fence on the right bank. The water is depicted with light blue and white washes, and the banks are covered with green foliage and trees. The background shows more trees and a hint of a sky with light blue and white washes. The overall style is soft and painterly.

Jare Alberdi

Bigarren taldea
1. saria

KOMIKIA
Inor ez da inor baino hobe





Kolorearen Berreskurapena



KOMIKIA



Koldo Eleizalde - Lehiaketak 2023 -

Maite Errasti

Hirugarren taldea
1. saria

KOMIKIA
Tragedia eta komedia



Jon Altuna

Hirugarren taldea
2. sariaKOMIKIA
Ezeztabaibaida ezbaian



